

# Arrasate

P R E S S U

ARRASATE • ARAMAIO / Eguena / 2002ko urriaren 31 / 604. zenbakia




## ARRASATEKO ESKUBALOIA

Aurtengo denboraldiari aurre egiteko Arrasateko senior mailako bi taldeak, gertu

ORAIN ETA HEMEN: MONDRAGOETARRAK TALDEA/7 • KULTURA: 'ONDO ESAN BEHARKO' IKUSKIZUNA/14

AZALA: ALEX AZKARATE. ARGAZKIA: XABIER URZELAI



Ezerk ez dizu ihes egingo.

**GOITBko albistegiak arratsaldean:**

14:30, 15:30.

Aurkezlea: Gorka Etxabe.

**GOITBko albistegiak gauean:**

20:00, 21:00, 22:00, 23:00.

Aurkezlea: Maider Osa.

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**


**KALEINKESTA/ Ezaguketan dozu Zaharberri? Ze pentsetan jatzu egitten dauen lana?**



**AITOR ODRIOZOLA**  
Ikaslie



**MARI LUZ CHACÓN**  
Langillie



**JUAN JOSE URIBARREN**  
Jubilau



**MARI KARMEN GONZÁLEZ**  
Langillie



**JONE LEZETA**  
Ikaslie



**KOLDO ETXEBARRIA**  
Langillie

Ez neuen ezaguketan, bai-  
ñe ekimena oso interesan-  
tie ikusten dot. Arlo horre-  
tan premiñe haundixe dago,  
euskaldun zaharrek be eus-  
keraz berba egitteko modu  
bat dalako.

Ez neuen ezaguketan, bai-  
ñe oso idea ona dala uste  
dot. Euskerie praktiketa-  
ko eta euskaldun barrixek  
euskal munduen poliki-  
poliki sartzeko be oso apro-  
pose dala uste dot.


Ez neuen ezaguketan, bai-  
ñe oso idea ona dala pen-  
tsetan jat; euskeraz gehi-  
xago berba egin ezkeru,  
danondako hobeto. Lehen  
be kanpotik etorritakuei  
hola erakusten gutzien.

Bai, ezaguketan dot. Neuk  
Eroskin egitten dot lan, eta  
lanien astero ordu batez  
elkarketan gare euskerie  
praktiketako. Neuretako  
aproposa da, praktiketako  
biherra dauket-eta.

Ez neuen ezaguketan, bai-  
ñe oso ondo pentsetan jat.  
Eskoletan ikasittakue gero  
praktiketie derrigorrezkue  
dala pentsetan jat. Denpo-  
rie euki ezkeru, parte har-  
tuko neuke Zaharberri.

Ez neuen ezaguketan, bai-  
ñe oso interesantie pen-  
tsetan jat. Euskerie berba  
egindde ikesten da, ira-  
kurten baiño gehixago.  
Denporie eukiko baneu,  
iguel parte hartuko neuke.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK ORDUTEGIEN INFORMAZIO FALTAN** Urtebete baino  
gehiago pasatu da Pesa garraio enpresak eta Gipuzkoako Foru Aldun-  
diak asteburuetan gauaz autobusen zerbitzua ezarri zutenetik hona.  
Zerbitzu hori aspalditik eskatzen zebiltzan, eta jarri zutenean, jen-  
te asko poztu zen. Baina, zoritxarrez, ez dago autobus horien ordu-  
tegien gaineko informazio nahikorik, ezta autobus geltokian ere.

**ETABARRUAN...**

<b>ORAIN ETA HEMEN/6</b>	<b>KULTURA /14</b>	<b>ZAHARRAK /17</b>
<b>Lanak alde zaharrear</b>	<b>'Ondo esan beharko'</b>	<b>Iturbideko ordainketa</b>
Alde zaharrear labainkorak diren guneak konponduko ditu laster Arrasateko Udalak.	Bihar, zapatua, Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak kafe-antzerki ikuskizuna egingo dute.	Iturbide egoitzako ordainketa sistema aldatu dute. Aldaketak egoiliar berriei eragingo die.

**ASTEKODATUA**

**60.000**

**LITRO GASOLIO AURKITU ZITUZTEN CERRAJERAN**

Hirurogei mila litro gasolio inguru aurkitu dituzte Cerrajeran. Uste baino gasolio gehiago dago Cerrajerako lurretan. Joan den eguna ezkeru, Econor enpresa ari da gasolioa ateratzen.

**BESTEKEKESANA**

**“Dagoeneko badaude enpresak 3-4 urte daramatzatenak euskara plangintzetan murgilduta. Askotan ja, abiatze fasea oso ezberdina izaten da. Batez ere egoera txarra den tokietan aurrera pauso nabarmenak ematen dira, batik bat, ahozko erabilera informalean eta... abiatze egoera hobea bada, aurrerakuntzak ez dira hain nabarmen ikusten. Garbi dagoena da, normalean plangintzetan sartu diren enpresek jarraitzen dutela, nahiz eta aldaketak izan. Lehen fase batean, helburua izaten da dinamika bat martxan jartzea, xede konkretu batzuk lortzea, eta hizkuntz egoerari buelta ematen hastea. Gero beste fase batera iristen dira planak, eta helburuak izaten dira, urratsak eman ahala lortutako hori arau bilakatzea”**  
**JUAN LUIS AREXOLALEIBA**  
'Euskaldunon Egunkaria'/02-10-27

**HERRITARRENBERBAK/ Itziar Ezpeleta**



*Domu Santu Eguna*

**A**ste honetan ospatuko da gure artetik heriotzak eraman dituen lagunen eguna. Denok ospatzen dugu, nor bere erara, egunen batek heriotzak denok harrapatuko gaitu-eta.  
Baina jaio baginen, bizi izateko da. Eta, gainera, ez ginen bakarrik jaio, baizik eta familia baten, herri baten... Pertsona artean jaio baginen, ez ginen bakardadean bizi izateko jaio. Pertsona zein konplexu, bakoitza bera bakarra da, baina denok bestean beharra daukagu. Eta pertsonen oreka ez du, akaso, individualtasunak apurtuko?  
Gaurko hariari jarraitzeko, bizi izateko, gozatzeko, sufritzen dugunean, akaso, gure inguruko lagunek ez diote gure bizitzari kalitatea emango?  
Aste honetan hildakoen eguna ospatzen dugu denok, eta kristauok Domu Santu Eguna, hau da, santu guztien eguna. Santu asko zertifikatuta daukagu, baina beste batzuk

ez. Zenbatak igaro duten bizitza jator bizi izaten, guri bizipoza sentiarazten... Gure egutegi partikularrean euren izenak idatzita dauzkagu, guk santu bezala homologatuta dauzkagu, eurekin gogoratzen gara, otoitz egiten diegu, eta ahalik eta hoberen bizi izateko laguntza eskatzen diegu.  
Gure bihotzean dauden hainbat eta hainbat gizaki betikotasunean dauzkagu bat eginda. Misterio horren aurrean, hainbat jarrera mota dauzkagu, inertzia hutsa, akaso.  
Misterio horreki-ko zalantza batzuk daukat, eta zin degizuet batzuetan nire fedea ahula dela. Baina gaur egun ere bakarrik ez gaudela jakiteak eta batzuetan hanka sartzeak gure baitan hutsuneak eragiten ditu.  
Gure aitak ohartzen gintuen eta hobeto ulertzen laguntzen zigun, beldur barik bizi izaten ikas dezagun, egun bakoitza bakarra delako, eta disfrutatu barik denbora galtzeak ez duelako merezi. Ondo pasatu!

**“Gure egutegietan hainbat sendi idatzita dauzkagu, guretzat santu bezala homologatuta daudenak”**

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Aldaiko kanposantuko azken Domu Santu Eguna



Orain dela hamar urte, arrasatearrek, urtero moduan, Domu Santu Egunean Aldaiko kanposantura jo zuten. Izan ere, hurrengo urterako San Kristobalگو kanposantua zabalik egotea espero zuten; hala, orain dela hamar urtekoa Aldaiko hilerriaren azkeneko urtea izan zen.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Eztegu"



Ezteiak. Ezkontza eta ondoko ospakizunak. *-Lehe, ezteguak iru egun irauten zeben.* Pluralean ia beti.

GORKA ORTEGA


HAUGIROA!

MINIMOA	7°C
Astelehena, 28	
MAXIMOA	26°C
Astelehena, 28	
ASTEKO EURIA (l/m <sup>2</sup> )	1 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 23	19°C	11°C	- l/m <sup>2</sup>
Eguena, 24	19°C	7°C	0,7 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 25	25°C	12°C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 26	25°C	9°C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 27	20°C	10°C	0,3 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 28	26°C	7°C	- l/m <sup>2</sup>

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuek

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Jon Sarasua berbal dia irratian

Kooperatibista Euskaldunen Topaketaren baitan Lanki ikerregiko zuzendari Jon Sarasua egin zuen berbal dia entzuteko aukera izango duzue Arrasate Irratian, egubakoitzean, goizeko hamaiketan. Kooperatibek euskara zergatik bultzatu behar duten edo zergatik den helburu azalduko du. Sarasua berbal diaz gainera, Kontseiluko presidente Xabier Mendigurenek esandakoak ere eskainiko ditugu, baita egun hartarako atera zuten kantua ere.



Alberto Iñurrategiren espedizioa

Alberto Iñurrategi Cho-Oyu mendia igotzen ahaleginduko da, eta astelehenean abiatuko da Himalaiara. Astean, baina, irratian izan da, eta espedizioaren nondik norakoak kontatu dizkigu. Elkarrizketa zapatuan eta domekan entzun ahal izango duzue. Horrez gain, azaroaren lehen astean Florentzian Europako Foro Soziala izango da, eta Amaia Arrizabalagak horretaz egin digu berba. Eta, Edurne Etxabek alzheimerraz jardun du.

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 1**  
Español. Araba etorb. 17 ..... 943 79 18 65
- ZAPATUA, 2**  
Azkoaga. Ferrerías 1 ..... 943 79 15 15
- DOMEKA, 3**  
Azkoaga. Iturriotz 33 ..... 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 4**  
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 ..... 943 79 22 26
- MARTITZENA, 5**  
Irizar. Erguin 11 ..... 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 6**  
Amezua. Santa Marina 32 ..... 943 79 09 74
- EGUENA, 7**  
Zabala. Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERITXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Iguatorialdea ..... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak ..... 943 79 39 00  
Emakumeak ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea ..... 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**  
Guardiak medikua ..... 943 46 11 11  
Astelehenetik egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan ..... egun osoa
- Arrasate**  
Astelehenetik egubakoitzera ..... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan ..... 09:00etatik 14:00etara  
• Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea ..... 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44
- ERTZAINZAK**  
Arrasate ..... 943 79 71 99
- SUHILTZAILAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua ..... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088
- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
943 79 78 44
- GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza ..... 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron ..... 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokia**  
Zapatua 19:00 (elebiduna)  
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 (meza nagusia) (euskaraz) 12:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**  
Zapatua 19:00 (elebiduna)  
Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**  
Zapatua 19:00 (elebiduna)  
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (meza nagusia) (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**  
Zapatua 19:00 (elebiduna)  
Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**  
Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia**  
Zapatua 19:00 (elebiduna)  
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)

OHARRAK

- KAFE-ANTZERKI SAIOA**  
Etzi, zapatua, Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak *Ondo esan beharko* kafe-antzerki saioa eskainiko dute Amaia Udal Antzokiko *hall*-ean, 22:30ean.
- EGUENETAKO ZINEKLUBA**  
Azaroaren 7an, egunean, *En Construcción* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

- ASKATASUN URRATSAK**  
Azaroaren 5ean, martitzena, Askatasun Urratsak korrikaldiari ongietorria Muxibarren, 10:00etan. Gero, Seber Altuben ekitaldi politikoa eta horren ondoren, Soraluze-raino auto-karabana.

- LITERATURA SOLASALDIAK**  
Azaroaren 7an, Franz Kafkaren *Metamorfosis* liburua aztertuko dute Monterronen, gaztelaniaz. Azaroaren 11n, Joseba Sarrionandiaren *Lagun Izoztua*-ren gainean mintzatu-tuko dira, euskaraz.

- TAROTISTA GAMBRINUS-EN**  
Bihar, egubakoitza, Maria Ely Olaeta tarotistak kartak botako ditu Gambrinus tabernan, 17:00etan.

- RUPER ORDORIKA**  
Azaroaren 8an, Amaia Udal Antzokian Ruper Ordorika.

AEDrenAGENDA

- HIRU HAUNDIXEK**  
Azaroaren 1ean, 2an eta 3an, AEDk antolatutako Hiru Haundixek Hiru Egunetan egingo dute. Berrogei gazte joango dira.

- ZAHARBERRIKO IZENEMATEA**  
Zaharberri euskaldun zaharrek eta euskaldun berriek parte hartzeko izenematea zabalik dago.

URBANOENORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.



ASTEKO PROGRAMAZIA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia: Maria Agirre eta Nerea Zubietek gidatuta.  
09:20 Eguneko agenda.  
09:30 Igo autobusera: Aitziber Aranburuzabalak gidatutako magazina.  
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
10:06 Igo Autobusera.  
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.  
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efe-merideak, zozketak, zorion agur-rrak...  
12:00 Euskadi Irratiko albistegia  
12:06 Musika berriaren tartea: orain dela gutxi kaleratutako abestiak entzuteko aukera.  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.  
19:00-21:00-23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra
- AZAROAK 1, EGUBAKOITZA**  
11:00 Saio berezia: Kooperatibista Euskaldunen Topaketa.
- ZAPATUA**  
11:00 Asteko elkarrizketak: Alberto Iñurrategi, Maider Arriaran, Edurne Etxabe eta Amaia Arrizabalaga.
- DOMEKA**  
11:00 Asteko elkarrizketak

## ASTEABIHITZETAN

### Bertsolamintza jardunaldiak

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek antolatuta egunotan ospatzen ari diren Bertsolamintza jardunaldien barruan, Monterron jauregia izan zen aurkezpenegune eguaztenean.

Bertso-gaia abiapuntu hartuta, hainbat ikuspuntutatik txosten bana prestatu dute bost adituk, eta eguaztenean, horietako bi izan ziren Arrasaten: Maialen Lujanbio eta Jon Abril. Bertsolamintza jardunaldien helburua bertsolaritzaren gainean gogoeta eta eztabaida sustatzea da, eta eguazte-neko saioak bete zuen helburu hori.

### ELA sindikatuaren berbaldia

Astelehen arratsaldean, ELA sindikatuak berbaldia egin zuen udaletxeko osoko bilkuren aretoan. ELA sindikatuko ordezkari batek egin zuen berbaldia, Patxi Agirrezabala zarautzarrak, hain zuzen ere. ELAko Zerbitzu Publikoen arduradun nagusia da hura. Berbaldiaren helburuetako bat izan zen negoziazio kolektiboaren gainean ELA egiten ari den hausnarketa udal eta foru langileei jakinaraztea. Langileen baldintzak arautzen dituen akordioa etenda dago, eta, hori dela eta, ELA sindikatuaren iritziz, beharrezkoa da alternatiba.

### Kalitatearen aldeko hitzarmena

MCCk eta AENOR erakundeak lankidetzat hitzarmena sinatu dute. Horren ondorioz, MCCk kalitatearen alde eta ingurumenaren alde lanean segitzeko apustua egin du. Gaur egun, MCCko 140 enpresak dute ISO ziurtagiria. Goiena Telebista MCCko Idazkaritza Teknikoko Fabian Bilbaorekin izan zen eguenean, eta Fabian Bilbaoren esanetan, AENOR erakundearekin lankidetzat hitzarmena sinatzea oso garrantzitsua da; izan ere, kalitatearen aldeko ziurtagiriak banatzen dituen erakunde garrantzitsua da.



### Arrasateko I. Cante Flamenko Txapelketa

Arrasateko I. Cante Flamenko Txapelketako finala izan zen zapatuan Amaia Udal Antzokian. Guztira, 18 parte hartzaile izan dira txapelketan, eta zazpi iritsi ziren finalera. Txapelketan onena Rocio Ruiz cadiztarra izan zen. Bigarrena, berriz, Jose Lara malagarra izan zen.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Bidean gelditu direnak

**B**ihar Domu Santu Eguna ospatuko dela-eta, une batez gogoan izan dut hildakoek onerako eta txarrerako ematen diguten errespetua. Gure kulturaren, behintzat, ez gara kanposantura, hildakoengana, sarri joaten. Eta, are gehiago, hildakoek gainera kontuek, izua ez bada, hotzikara edo ezinegona eragiten digute.

Bestalde, munduko beste

muturrean, euren ustetan lurraren zilborrean, AEBetan, hain zuzen ere, Halloween gaua ospatzen dute, hildakoek kontuaren (eta ez hildakoek) gainean barre eta trufa eginez. Horretan, behinik behin, ez dabilta hain gaizki, umorez hartzea jarrera oso ona baita.

Gogoan daukat, era berean, behin batean, film laburren jaialdi batean ikusi

nuen dokumentala: Mexikon urtean behin hildakoek omenez ospatzen duten eguna (eta gaua) erretratatzeko zuten.

Itxura denez, Mexikon oso hedatuta dago senidearen edo lagunaren hilobiaren ondoan familia edo lagunak elkartzeko eta hantxe bazkaltzea, afaltzea, bai eta mozkortzea ere. Egund batez, behintzat, bidean gelditu zen gertuko horren alboan bildu eta jaia egiten dute. Bitxia, behintzat bada!

## ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

### DOMU SANTU EGUNA DELA-ETA, KANPOSANTUAK LOREZ ETA KANDELAZ APAINDUTA

Urtero bezala, bihar, egubakoitza Domu Santu Eguna ospatuko da. Goizean goiz irekiko dituzte kanposantuetako ateak, eta jende asko izango da kanposantuan. Usadio zaharra izan arren, oraindik ere jende asko animatzen da Domu Santu Egunean hilerrietara osteratxoa egitera. Hala ere, beste batzuek

gurago izaten dute egun batzuk lehenago joatea, senideak bakardade eta lasaitasun osoz bisitatzeko. Modu batean ala bestean, Domu Santu Eguna da hildako senideei eskaintzen zaien egun nagusia, eta aurten ere lore sorta ederrez apainduta egongo dira hainbat eta hainbat hilobi. /X.U.



**ALDEDI**  
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**BITTORI**  
**ERRETEGIA**

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**HIRIGINTZA/** Uribarri auzoan aparkalekuak egiteko aurreproiektuari onespina eman dio Arrasateko Udalak

# Uribarrin aparkalekuak egiteko aurreproiektua onartu du Udalak

UBANE MADERA

**Oraingo asteko Gobernu batzordeak onespina eman dio Uribarri auzoan aparkalekuak egiteko aurreproiektuari. Hortaz, orain, aurreproiektu horretan oinarrituta behin betiko proiektua idatziko dute. Dena dela, oraindik zehaztu barik dago aparkaleku kopurua.**


Roberto Telleria arkitektoak egin du Uribarriko aparkalekuen aurreproiektua. Ondoko argazkien bitartez argi ikusten da zelakoa izango den aparkalekuen eraikin berri hori, eta zela geratuko den Uribarri auzoko inguru hura.

Adibidez, Santutxoko ermita bere horretan utziko dute. Garrantzitsua da hori, bereziki, auzotarren eskaerak kontuan hartuta.

## ALDAKETAK

Dena dela, aurreproiektuan zuzenketaren bat ere egin du Gobernu batzordeak: esaterako, argazkiko eraikinak bost solairu dituen arren, erabaki dute bosgarrena kentzea eta Erguin kaleetik beste sarrera bat egitea. Eta, bestalde, hirugarren solairua elizaren oinarriaren parerainokoa izango da, eta ez, orain ikusten den moduan, apur bat altuagoa.

Orain, lanak egiteko proiektua idatzi beharko dute.



Oraindik ez dute zehaztu zenbat aparkaleku izango dituen Uribarri auzoan egin gura duten eraikinak. Irudian, etorkizunean zelan geldituko den.

## PSE-EEK Egitamu Orokorra kritikatu du prentsaurrekoan

UBANE MADERA

**Arrasateko Udaleko talde sozialistak salatu du Egitamu Orokorren eraginez 400 lanpostu galduko direla Arrasaten. Hori salatzeke, prentsaurrekoa egin zuten zinegotziek eguaztenez.**

Arrasateko alderdi sozialistak adierazi zuen "herriko Egitamu Orokorra onartzearen kontra daudela, 400 lanpostu baino gehiago arriskuan ipintzen dituelako". Hala adierazi zuten herenegun, martitzenean, Arrasateko sozialisten egoitzan egindako prentsaurrekoan. Han izan ziren, besteak beste, Arrasateko zinegotzi sozialista guztiak: Francisco García, Blanca Roncal, Matilde Martín eta Ismael González. Talde sozialistaren esanetan, Egitamu Orokorren bitartez, "Xabier Zubizarreta alkatea eta Begoña Erraztik gidatzen duen alderdiak herriko zenbait enpresa desjabetu gura dituzte". Adibidez, Gelmaren kasua da sozialistek salatzen dutenetako bat.

Hori dela eta, aditzera eman zuten onartutakoa bertan behe-za uztea lortzeko adostasunak bilatzen saiatuko direla Gipuzkoako sozialistak.

### INPOSAKETA

Sozialisten iritziz, "Udala gobernatzen duen Sozialista Abertzaleak taldearen gehiengoa eta Eusko Alkartasunaren botoak inposatu egiten dira, babes sozialik ez izan arren". Gaineratu zuten "Egitamu Orokorra Arrasateren etorkizunerako prozesu garrantzitsuenetarikoa bat izango dela. Eta, oro har, "Sozialista Abertzaleak taldeko Xabier Zubizarreta alkatea Eusko Alkartasunaren botoen laguntzarekin egiten ari den politika munizipala" salatu zuen alderdi sozialistak.

### INPOSAKETA

Gogora dezagun Arrasateko Egitamu Orokorra azkeneko osoko bilkuran onartu zuela udalbatzarrek, behin-behingoan. Orain, txostena Diputazioan dago, hain zuzen, behin betiko onespina eman diezaioten.

## Antoñako kirol kantxak konponduko dituzte

UBANE MADERA

**Musakolako kiroldegian dauden Antoñako kantxak konpontzea onartu du oraingo astean Gobernu batzordeak. Ia 100.000 euro inbertitu beharko ditu horretarako. Besteak beste, margotu egingo dituzte.**

Antoñako kantxak berritzeko Udaleko Zerbitzu Teknikoek aurkeztutako proiektua onartu du Gobernu batzordeak. Orain, lanok enpresaren bati adjudikatu beharko dizkiote.

Oro har, Antoñako kirol pista konponduko dituzte, *L* itxura duten eraikin horiek, hain justu ere.

### SASKIBALOIKO KANTXA

Pista horietan pilotaleku bi, squasharako kantxak, saskibaloirako kantxa, muskulazio aretoa, judo aretoa eta rokodromoa daude, besteak beste. Adibidez, kantxetako hormigoia kaltetuta dago, eta hori konponduko dute. Horrez gain, margotzeko beharra ere badute kantxek, bereziki, pilo-

taletuek. Eta, saskibaloiko kantxako zorua ere berrituko dute. Orain dela gutxi izandako itoginek kaltetutako oholak aldatuko dituzte, eta zoru osoa lixatu eta bernizatuko dute.

### BOST HILABETE

Udaleko Zerbitzu Teknikoek zehaztu dutenez, hiru hilabete beharko dira lanok egiteko. Dena dela, bost hilabeterainoko epea onartu dute.

Era berean, ia 100.000 euro inbertitu beharko ditu Arrasateko Udalak lanok egiteko.

### MONTERRONGO KOMUNAK

Monterron parkearen sarreran komun publikoak jartzea ere onartu du Gobernu batzordeak oraingo astean. 13.248 euroko aurrekontua onartu dute horretarako. Zerbitzu Saitetik zuzenduko dituzte lanok, eta parkearen gertutasuna dela-eta pentsatu dute egokia dela han komun publikoak ipintzea.

Komun bi ipiniko dituzte: bata, arrunta eta bestea, zailtasunak dituztenendakoa.

## LABUR

### Askatasun Urratsak izeneko martxa datorren astean

Datorren astean iritsiko da Arrasatera Askatasun Urratsak izeneko martxa. Martxa hori Algortan hasiko da, bihar, egubakoitza, eta Baionan bukatuko da, azaroaren 9an. Arrasatera, berriz, azaroaren 5ean iritsiko da. Hain zuzen ere, goizeko hamarretan ongietorria egingo diote, Muxibarren. Handik, Seber Altubera joango dira, ekitaldi politikoa izango da eta. Horren ondoren, berritoren bidea hartu eta Soraluze-rantz abiatuko dira. Era berean, azaroaren 9an Baionan egon gura duenak Arrasatetik irtingo den autobusean eman dezake izena, Irati tabernan.

Oro har, Euskal Herrian bizi izateko eskubidea aldarrikatzen duen martxa da Askatasun Urratsak. Horrez gain, presoen eta iheslarien egoera ere salatzen dute, "inongo eskubiderik barik euren familiarengandik eta lagunengandik urrunduta" daudelako.

**HIRIGINTZA/** Alde zaharrea konponketak egingo dituzte


# Zatirik labainkorrenak konponduko ditu Udalak

UBANE MADERA

Alde zaharreko zenbait zatitan zoladura aldatuko du Udalak. Oinezkoendako labainkorrenak diren zatietan egingo ditu lanak. Hain zuzen ere, Ferrerías, Olarte, Iturriotz eta Gazteluondo kaleen gune batzuetan. 77.103 euroko aurrekontua dute horretarako.

Euria egiten duenean edo kaleak garbitzen dituztenean, alde zaharreko zenbait gune arriskutsu bihurtzen dira, erabat labainkorrenak. Herritar bat baino gehiago labaindu eta hankaz gora erori izan da noizbait. Hori dela eta, Arrasateko Udalak gune horietako zoladura aldatu eta egokia goa ipintzea erabaki du. Horrekin batera, oinezkoei laguntzeko eskudelak ipintzea ere erabaki dute.

Proposamen hori Udaleko zerbitzu teknikoek egin dute, eta oraingo astean, Gobernu batzordeak onespina eman dio.



Olarte kantoian, Zurgin kantoian, Gazteluondon eta Iturriotzen egingo dituzte lanak.

## LAU LEKUTAN

Alde zaharreko lau gunetan egingo dituzte lanak. Hain zuzen ere, alde zaharreko gunerik aldapsuenetan. Olarte kantoia izango da gune horietako bat, eta Zurgin kantoia beste bat. Horrez gain, Gazteluondo kalearen zenbait puntutako zoladura ere aldatuko dute: adibidez, Gazteluondo kaleak eta Erdiko Kaleak bat egiten duten guneko espaloian; Gazteluondo kalea eta Ferrerías kaleko 48. zenbakiaren arteko zatian. Eta, Iturriotz kaleak Arrasate Pasealekuarekin bat egiten duen

guneko zoladura ere konponduko dute.

## SEI HILABETE

Lan horiek guztiak egiteko, asko jota, sei hilabeteko epea ezarri du Arrasateko Udalak. Bestalde, 77.000 euro pasatzeko inbertsioa egin beharko du.

Hain zuzen, oraingo astean, lanok egiteko proiektua onartu dute. Gero, lanok egiteko lehia-keta antolatuko du Udalak, eta gertu dauden enpresen proposamenak jaso eta aztertu eta gero

adjudikatuko ditu lanak.

## HARRI MOTA

Udalaren asmoa da gune horietako harria aldatzea. Kontua da alde zaharreko kaleak kareharriz egindako galtzada-harrizko kaleak direla. Dirudenez, kareharrria leundu egiten da erabile-arekin, eta horrek labainkor bihurtzen du, berreziki, automobilak ibiltzen diren lekuan. Hori horrela izanda, Udalak kareharrizko galtzada harriak kendu eta granitozkoak ipiniko ditu.



Jendez eta lorez beteko da bihar San Kristobal hilerria.

# Guztia gertu dago Domu Santu Egunerako

UBANE MADERA

Bihar, Domu Santu eguna izanda, jende ugari egingo dio bisita San Kristobal hilerriari. Han, guztia dago gertu herritarrek hartzeko. Aurten, 179 zerbitzu eman ditu San Kristobal hilerriak.

Hildako senideak eta lagunak bisitatzeko eguna da biharkoa. Sekula baino bisitari gehiago jaso ohi ditu azaroaren leian San Kristobal hilerriak. Arrasaten bizi direnez gain, kanpotar asko ere etorriko dira, Arrasaten ehortzita dauden senideak bisitatzera.

## AUTOBUS URBANO

Besteak beste, Leintz Garraioak enpresak autobus zerbitzua handitu du gaur, eta hala egingo du bihar ere. Gaur, orduko autobus bat izan da hilerria joateko. Bihar,

berriz, goizean bi autobus ibiliko dira. Ordu erdira irtengo dira, Gorostizatik. Eta arratsaldean, berri, hiru autobus ibiliko dira; hoge minututik behin irtengo dira, Gorostizatik bertatik.

## TANATORIOA, ESTREINATUTA

Denera, 179 zerbitzu eman ditu urtariletik hona San Kristobal hilerriak. Errausketa labea erabili da gehien: 100 zerbitzu. Horren ondoren, horma-hilobiak izan dira gehien erabili direnak: 62. Bestalde, 14 panteoi erabili dituzte, eta auzoetan hiru enterramendu izan dira. Horrez gain, urrian inauguratutako tanatorioak ere izan du estreinaldia. Eta Udaleko Zerbitzu batzordetik adierazi digutenez, erabiltzaileak pozik geratu ziren zerbitzuarekin. Gogoratu behar da, berria izatez gain, Arrasateko tanatorioa bestelakoak baino bizpahiru bider merkeago dela.

**GIZARTEA/** Mondragoetarrak izeneko taldea aurkeztu dute Arrasaten

# Pentsamendu kritikikoan oinarritutako ereduaren alde egiteko taldea sortu da

UBANE MADERA

Talde berri bat aurkeztu dute Arrasaten: Mondragoetarrak. Adierazpen askatasuna, pentsamendu propioa, eztabaidarako kultura eta joera bultzatzea eta, oro har, euskaldunon balio positiboan berreskuratzea dira taldearen helburuak.

Hasteko, gaur egungo egoeraren diagnostikoa egin du taldeak. Izan ere, Mondragoetarrak testuinguru jakin baten baitan sortu da: pentsamendu bakarra nagusi den globalizazioaren garaian. Hala adierazi digute taldeko kide eta Euskal

Herriko Unibertsitateko irakasle Anton Mendizabalek eta Filologia Klasikoan lizentziadun Amaia García. Bien esanetan, pasibotasuna, elkartasun eza eta indibidualismoa dira nagusi gaur egungo gizartean. Horrekin batera, adierazpen askatasunak gero eta eraso gehiago jasaten duela ere salatu dute. Baita "inperialismo-tik datorren eskema sinplista, makiaveliko eta autoritarismoaren kultura bizi garea ere. Adibidez, Bushek *onak* eta *txarrak* bakarrik ezberdintzen dituenen". Pentsamendu sinplista hori Aznarren eta Europako buruzagien artean ere nabarmena dela

adierazi digute bi kideek; eta, horrekin batera, espainiar nazionalismo basatian oinarritutako eraso ere salatu dute.

## ARRASATEN BAZTERKETA SOZIALA

Herriko egoeraren diagnostika ere egin dute. Desoreka dagoela uste dute. Ekonomikoki garatuta egon arren, bazterketa soziala dagoela salatu dute: lan prekarioa, etxebizitzaren arazoa, laguntza sozialaren gabezia, euskararen egoera...

## BESTELAKO EREDUAREN ALDE

Hori guztia dela eta, Mondragoetarrak taldeak pentsamendu kritikokoan oinarritutako eredu gar-

*Izpiritu sokratikoan oinarritutako eztabaidaren kultura sorrarazi gura dute*

*Gure historiaren, kulturaren eta nazionalitatearen balio positiboan batu gura dituzte*

tu gura du, gizarte solidarioan eta, bereziki, gizarte aktiboan oinarritutakoa. Hain zuzen ere, gizarte aktibo eta parte hartzaile hori eztabaidaren eta kulturaren munduan garatu gura dute. "Herritarrek aktiboak izan behar dira; par-

taide, kultura eta pentsamendua egiterakoan". Pentsaera propioa, analitiko eta kritikoa garatu gura ditu Mondragoetarrak taldeak. Eta, bereziki, izpiritu sokratikoan oinarritutako eztabaidaren kultura sorrarazteko.

## ELKARRIZKETA

JOAKIN BEDIA/LAGUN AROKO MEDIKUA

*“Mobbing-aren biktima pertsona arrunta izaten da, lanean konpetentea”*

ARRASATE PRESS

Azkenaldian horren ezagun egin zaigun ‘mobbing’ deritzon gaixotasuna berbagai dugu segidan. Lagun Aroko lan-osasuneko mediku Joakin Bediak argitu digu apur bat zer den ‘mobbing’-a. Arrasate Irratian jardun zuen horretaz:

**Jakingo duzu, bada, zer den ‘mobbing’-a, ezta?**

Aspalditik modan dagoen patologia bat da, azken urteotan komunikabideetan asko irteten ari dena.

**Zergatik ari da horrenbeste irteten?**

Ez da berria, baina azkenaldian judizialki sententzia asko izan dira, eta, horren ondorioz, berba asko egin da.

**Eta gaur egun, lan ugari ere zerbitzuekin dute lotura...**

Bai. Lehen, beste patologia asko ikusten ziren; izan ere, orain dela 50 urte beste lan mota batzuk egiten zituzten eta beste patologia batzuk izaten ziren: bizkarrezurreko minak (pisuekin ibiltzeagatik)... Baina orain, zerbitzueta-ko lanak nagusi direnez, patologia psikosozial berriak sortu dira.

**‘Mobbing’-a izutzeko moduko patologia da?**

Izutzeko ez, baina kontuan edukitzeko modukoa bai.

**Zer da?**

*Mobbing*-a da beste langile batek, edo nagusiak... egindako presioak eragindako patologia; eta ondorio nahiko gogorak izan ditzake langilearen bizimoduan. Antsietatearekin edo depresioarekin lotutako patologiak ere izan ditzake.

**Eta zela gertatzen da?**

*Mobbing*-ean beti dago erasotzailea eta eraso jasan duena. Normalean, hamarretik zortzi kasutan, nagusiak edo norbaitek langile bat baztertzen du arrazoi barik. Emakumeetan gehiago gertatzen da; erdiak baino gehiago. Eta inkesten arabera, EAeko langileen %5ek diote *mobbing*-ak erasanda daudela, eta Estatuan egin dituzten beste inkesta batzuek esaten dute %10 izan daitekeela.

**Lehen, gaixotasun horrendako beste izen batzuk erabilzen zituzten?**

Nazkatuta egotearen sindromea, estresa... baina ez ziren igualak. *Mobbing*-ean beti izan behar dira erasotzailea eta biktima.

**Hiru ‘mobbing’ mota daude, ezta? Nagusiak langileari egiten diona (bertikala), langileak langileari egiten diona (horizontala), eta zein da bestea?**

Normalena da goitik behera datorrena: nagusia langilearen kontra; baina gertatu izan dira behetik gorako kasuak ere: langileak nagusiari kontra egitea.



UBANE MADERA

*“Azkenaldian, sententzia asko izan dira, eta, horren ondorioz, berba asko egin da ‘mobbing’-az”*

**Zelakoak izaten dira erasotzaileak?**

Nortasun apur bat nartzisista izaten dute. Horrek esan gura du psikiatrikoki nartzisista bada, handinahi antzekoa izango dela; egiten duena da bere burua ikusi bakarrik eta beste batzuen gainetik ibili, besteak baztertu arte.

**Biktima zelakoa izaten da? Badago profilen bat?**

Pentsa daiteke biktima gizona izan behar dela; baina normalean ez da horrela izaten. Pertsona arrunta izaten da, lanean konpetentea, eta bere lana egiterakoan, gainerako langileen artean oso preziatua dena.

Dena dela, orain arte erasotzailea eta biktima aipatu ditugu; baina hor tartean beste langile

*“Goitik beherako kasuak izaten dira ‘mobbing’-ean: nagusia, langilearen kontra”*


batzuk izaten dira, ikusle moduan, eta ez dute parte hartzen; biktimari ez diote laguntzarik ematen, ez dute elkartasunik erakusten.

**Horrelako kasuren bat izanez gero, zer egin?**

Komeni da lagunak enpresako medikuarekin edo egotea, kasua zela bidera daitekeen jakiteko; bereziki, *mobbing*-a jasaten duenak ez bukatzeko horren gaizki; izan ere, antsietatean edo depresioan erortzen bada, medikazioa behar du; eta hori baino lehen...

**Baina edozein lankidarekin dugun eguneroko gora behera hori ez da ‘mobbing’-a, ezta?**

Ez; *mobbing*-a zerbait sistematikoa da, eta ez hamar eguneko kontua.



IKER BARANDIARAN

Joan den astean hasi ziren Cerrajerako gasolioa ateratzen.

## Uste baino erregai gehiago aurkitu dute Cerrajeran

UBANE MADERA

Arrasateko Udaleko ordezkariak uste dutenez, Cerrajerako lur azpiko erregai biltegian 60 mila litro erregai baino gehiago egon daitezke. Aurreko astean, egunean, ekin zioten hango gasolioa ateratzeari.

Egun dezente beharko dituzte Cerrajerako lurretan aurkitutako gasolio guztia ateratzeko. Aurreko astean, egunean, hasi ziren erregai ateratzen. Horretarako, Saiolanen atzeko aldean aurkitutako biltegiaren zuloa handitu egin dute, eta gasolioaren biltegia bistan geratu da. Handia da: biltokiaren tanga nagusiak (hamabi metro luze eta bi metro zabal da hango hori) 50 mila litro zituen, eta gainezka zegoen. Horrez gain, tanga hori inguratzeke, konkret sendotuko beste biltoki bat zegoen eraikita, eta hori ere erregaietz beteta zegoen, gutxi gorabehera, hamabi mila litroekin. Hortaz, gasolio kopuru dezente handia dago Cerrajerako etxebizitzak egiten ari diren tokian. Udal ordezkariak eta erregai ateratzen ari den Econor enpresak uste dute Cerrajeraren antzinako biltegi horretan 60 mila litro erregai baino gehiago dago-

ela, eurek pentsatzen zutena baino gehiago; gasolio hori guztia ateratzeko, Econorren kamioiak lauzpabost itzuli egin beharko ditu.

Edozelan ere, hasi dira gasolioa ateratzen. Astelehenean (hilak 28), 18.000 litro inguru ateratu zituzten. Eta martitzenean jarraitu zuten lanean. Hain zuzen ere, aurrez ikusitakoaren arabera, martitzenean bertan bukatu behar zuten biltegia husten. Gero, gasolio hori guztia Gasteizera eramango dute, han birzikla dezaten.

**LAGIN GEHIAGO**

Dena dela, biltegi horren garbiketarekin ez dira lanak bukatuko. Izan ere, orain aurkitutako biltegiaren gain, gehiago daudela uste dute. Hori jakiteko, inguru arakatuko dute. Hain zuzen ere, laginak aterako dituzte. Eta lagin horiek zehaztuko dute lurra non dagoen kutsatuta eta zer kutsadura mota duen. Horrela, beste biltegi bategi bategi, haiek non dauden jakitea posible izango da, gero, garbitu ahal izateko.

Era berean, lur azpiko biltegietatik zenbat erregai isuri den ere zehaztu behar du Udalak, baita zenbaterainoko kutsadura eragin duen ere.

## LABUR

### Jarduera ekonomiko eta hilerriko panteoien gaineko zergak

Arrasateko Udalak jakinarazi du 2002ko Udal Hilerriko panteoien mantentze-lanen zergaren ordainagiriak ordaintzeko borondatezko epea zabalik dagoela, urriaren 20tik abenduaren 20ra arte. Behin epe hori pasatuta, ordaindu barik dauden ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte. Horrez gain, 2002ko jarduera ekonomikoaren gaineko zerga kobratzen hasiko dela ere jakinarazi du. Borondatezko epea azaroaren 10ean bukatuko da. Helbideratutako ordainagiriak banketxean kobratzen ari dira, urriaren 20az geroztik. Helbideratu bariko ordainagiriak dituzten zergadunek, berriz, eurek esandako zerga helbidean jasoko dute ordaintzeko behar duten agiria. Ordainketa edozein bankutan edo udaletxean bertan egin daiteke; eta urriaren 30erako ez badu agiria etxean jaso, Bilketarako Udal Bulegoetan eskatu beharko du. Borondatezko epea amaituz gero, %20ko gainkarguarekin kobratuko dute zerga.





## ARIZMENDIKOEN PERRETXIKO AZOKA ARRAKASTATSUA

**A**rizmendi Ikastolak antolatuta, XVII. Perretxiko Txapelketa izan zen Arrasaten domekan. Itxuraz, ikasleek oso kalitate oneko perretxi-koak batu zituzten. Sorta Onenaren saria San Viator Ikastolako bigarren mailako Kuletoak taldeak irabazi zuen. Aurkezpen Onenaren saria, bestalde, Almengo Amanita Muskaria taldearendako izan zen.



## BADAEZPADA ERE...

**O**talora Lizentziaduna kalean ispilua jarri berri dute. Ispilua Okendo kaletik datozenendako dago pentsatuta, bidegurutze horretan ez da-eta erraza ondoko kaletik datozenak ikustea. Eraginik ez badauka ere, ikasle asko izaten da inguruetan, eta, badaezpada ere, neurri guztiak motz geratzen dira.



## BABESTEKO, ALA?

**M**aisu Arano kalean dauden zuhaitzek babes beharra ei dute, ikusi bestela zer-nolako babes neurriak hartu dituzten zuhaitzok babesteko. Badirudi porlanak ez diela batere onik egiten, eta horregatik jarri dizkiete babes neurri horiek. Kuriosoa, behintzat, bada.

## AMARAUN TALDEAREN KONTZERTUA AMAIAN

**J**oan den egubakoitzean, Amaia Udal Antzokiko hall-ean Amaraun taldearen kontzertua izan zen. Kontzertua AEDk antolatu zuen, Kultur Errotaren barruan, eta berrogeita hamar lagun izan ziren bertan. Amaiara joan zirenek ondo baino hobeto pasatu zuten, musika onaz gozatzeko aukera izan zuten-eta. Amaraun taldeak jazz eta musika tradizionala uztartzen ditu, eta egunero ez dira horrelako kontzertuak izaten, Arrasaten ez, behintzat. Amaraun taldea Durangoko bi lagunek eta Gasteizko eta Iruñeko lagun banak osatzen dute, eta musikari onak dira. Kontzertuan izan zirenak, behinik behin, gustura baino gusturago izan ziren Amaia Udal Antzokiko hall-ean.



ARRASATEKO 2002-2003 DENBORALDIKO SENIOR MAILAKO ESKUBALOIKO TALDE BIAK

# Aurten ere Arrasatek eskubaloiko talde bi izango ditu senior mailan

Lehenengo taldea, AGR Arrasate, igoera fasea jokatzen ahaleginduko da; bigarren taldeak, berriz, maila horretan finkatzea izango du helburu

XABIER URZELAI

Asteburuo izango dugu eskubaloia ikusteko aukera; izan ere, aurten ere talde bi izango ditugu senior mailan. Lehenengo taldeak jokatzen ez duenean bigarren taldeak jokatuko du etxean. Lehenengo taldea Bernardo Balerdik gidatuko du, eta bigarren taldeko entrenatzailea, berriz, Jesus Mari Herrero izango da.

Talde bi izango dira senior mailan, baina talde bakoitzak helburu ezberdinak izango ditu: talde nagusiak, AGR Arrasatek, laugarren denboraldia egingo du maila horretan, eta dagoeneko esperientzia handiko jokalaririk ditu. Bernardo Balerdiren mutilek igoera fasea jokatzea izango dute helburu, eta horretan ahaleginduko dira.

Senior mailako bigarren taldearendako bigarren urtea izango da aurtengoa. Joan den urtean, lehenengo aldiz jokatu zuten maila horretan, eta gehienak gazte mailako jokalaririk ziren. Aurten ere talde gaztea da, baina dagoeneko urtebeteko esperientzia badaukate, eta joan den urtean egindakoa hobetzea izango dute helburu. Talde gaztea izan arren, joan den urtean, hainbat partidutan maila polita erakutsi zuten. Talde nagusiaren kontra jokatutako derbian ere ez zituzten gauzak batera erraz jarri, eta aurten ere, seguru asko, derbia ikusgarria izango da.

**AGR Arrasate taldeak esperientzia handiko jokalaririk ditu igoera fasea jokatzeko**

**Bigarren taldeak, esperientzia txikiagoarekin, partidu politik egin ditzake**



**Igor Egaña**  
Atezaina  
AGR Arrasate



**Aitor Txabarri**  
Atezaina  
AGR Arrasate



**Aitor García**  
Mutur-hegalekoa  
AGR Arrasate taldea



**Aritz Gordo**  
Erdilaria  
AGR Arrasate taldea



**Eneko García**  
Hegalekoa  
AGR Arrasate taldea



**Jonan Ezkibel**  
Erdilaria  
AGR Arrasate taldea



**Jon Urrutia**  
Mutur-hegalekoa  
AGR Arrasate taldea



**Ruben Espeso**  
Pibotea  
AGR Arrasate taldea



**Nestor Calleja**  
Hegalekoa  
AGR Arrasate taldea



**Gorka Arando**  
Mutur-hegalekoa  
AGR Arrasate taldea



**Manuel Carrasco**  
Pibotea  
AGR Arrasate taldea



**Ibai Mendaratx**  
Atezaina  
Arrasate taldea



**Jon Etxebarria**  
Atezaina  
Arrasate taldea



**Asier Valle**  
Atezaina  
Arrasate taldea



**Boñat Irزابال**  
Mutur-hegalekoa  
Arrasate taldea



**Iker San Miguel**  
Mutur-hegalekoa  
Arrasate taldea



**Asier Herrasti**  
Hegalekoa  
Arrasate taldea



**Mikel López**  
Erdilaria edo hegalekoa  
Arrasate taldea



**Mikel Ocaja**  
Hegalekoa  
Arrasate taldea



**Haritz Zubiato**  
Pibotea  
Arrasate taldea



**Oier Ortiz de Mendibil**  
Hegalekoa  
Arrasate taldea



**Garikoitz Madinabeitia**  
Erdilaria  
Arrasate taldea



**Yago Cascón**  
Mutur-hegalekoa  
Arrasate taldea



**Adrian Prieto**  
Pibotea  
Arrasate taldea



**Aitor Ezkibel**  
Pibotea  
Arrasate taldea

**Babeslea**

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Gariñai Etorbidea, 2-6. Arrasate

SASKIBALOIA

# Iker Zubiriaren mutilek laugarren saiakera egingo dute aurreneko puntuak eskuratzeko

Oraingo asteburuko partiduan Kenci Arrasate taldeko mutilek Iruñeko Consmetal taldearen kontra jokatuko dute

XABIER URZELAI

Kenci Arrasate taldeak geroago eta gaitzago du denboraldi honetako helburua lortzea: iguera fasea jokatzea, alegia. Asteburuan denboraldiko laugarren partidua jokatuko dute, eta etxeok argi daukate ezin direla esku hutsik bueltatu Iruñetik.

Consmetal talde nafarra, hasiera baten, ez da orain arte jokatutako taldeak bezain indartsua. Kenci Arrasatek denboraldi hasiera kaskarra egin du; emaitzei dagokienez, bai, behintzat. Baina kontrarioak ere ez dira makalak izan. Denboraldi hasiera gogorra tokatu zaie Arrasateko mutilei, eta hurrengo partiduetan aurrez aurre izango dituzten aurkariak ez dira orain artekoak bezain sendoak izango; irabazteko moduko partidua izango dira, hortaz. Aukera polita izango dute oraingo asteburuan, Iruñean, orain arte jokatutako moduan jokatuko, azken minutuetan zortea lagun

izan, eta lehenengo puntuak etxera ekartzeko.

**JOAN DEN ASTEAN ERE ZORTE TXARRA**

Aitzakia badirudi ere, joan den astean, Iker Zubiriak zuzentzen duen taldeak ez zuen batere zorte onik izan. Lehenengo minutuetan Atlético San Sebastián taldea gogoz irten zen kantzara, eta berehala aurre hartuz zuten markagailuan (0-7). Lehenengo minutuak baino ez ziren, eta mondragoetarrek berehala berdindu zuten partidua. Partidu parekatua izan zen, ondo ibili ziren talde biak, eta atsedenaldira kanpotarrak alde txiki batekin erretiratu ziren (44-51).

Hirugarren laurdenean etxeok partiduari buelta emateko asmoz irten ziren, eta norgehiagoka 94-94 amaitu zen. Luzapean Jagoba Gamarrak min hartu zuen, eta hainbat jokalarik bost faltarekin zeudenez, jokalarik bat gutxiagorekin jokatu behar izan zituen Kenci Arrasatek azken minutuak. Azkenean, 105-108 nagusitu ziren donostiarrak.



Beste behin, partiduko azkeneko minutuetan zorteak bizkarra eman zien mondragoetarrei.

MIKEL ARANBURU

ESKUBALOIA

# AGRk erraz irabazi zuen Beasainen, baina bigarren taldeak jipoi ederra jaso zuen

Iturripen jokatutako partiduan epailea izan zen protagonista, besteak beste, Arrasateko atezaina eta entrenatzailea egotzi egin zituen-eta



GOIATZ ARANA

XABIER URZELAI

**AGR erraz nagusitu zuen joan den astean jokatutako partiduan. Bigarren taldeak, berriz, partidua gogorra bezain zaila jokatutako partiduan, eta Donibane, joko zakarrari eta epailearen laguntzari esker, partidua irabazi zuen.**

AGR Arrasatek erraz irabazi zuen Beasainen jokatutako partidua. Hain zuzen ere, 12-29 izan zen emaitza, Arrasateren alde. Jesus Mari Herrero izan zen entrenatzaile lanetan, eta arrasatearrek hasiera-hasieratik erakutsi zuten nagusitasuna. Ez zen partidua ona izan, baina aurkaria makala denean kontzentratuta jokatzea ere ez da erraza izaten. Irabaztea zen garrantzitsua, eta hori, behintzat, lortu zuten.

**BESTE BEHIN, EPAILEA**

Bigarren taldeak ez zuen zorte bera izan domeka goizean Iturripen. Jesus Mari Herrero mutilek 13-30 galdu zuten Doni-

bane Majestic taldearen kontra, eta arrasatearrek sekulako jipoi jaso zuten. Jipoi, berbarene osotasunean, partidua gogorra izan zen-eta domekako. Partiduko protagonista epailea izan zen, eta ez lana ondo egin zuelako. Arrasatearrek ondo hasi zuten norgehiagoka, eta lehenengo minutuetan parekotasuna izan zen markagailuan. Gero, Donibane jokalarik beterranoak gogor hasi ziren defendatzen, eta Donibaneok egotzi beharrean Arrasateko entrenatzailea eta atezaina egotzi zituen epaileak. Lehen, protesta egitearren, eta bigarrena, epaileak berak ere ez daki zergatik. Horrela partidua aurrera ateratzea, gaitza baino gehiago, ia ezinezkoa da.

Oraingo asteburuan, AGR Arrasatek etxean jokatuko du, Donibane Cottal taldearen kontra. Partidua egubakoitzean jokatuko da, eguerdiko hamabietan. Senior mailako bigarren taldeak, berriz, kanpoan jokatuko du, Legazpin, domeka goizean; partidua hori 11:30ean hasiko da.

Senior mailako bigarren taldeko entrenatzaileak eta atezainak ez zuten partidua amaitu, egotzi egin zituzten-eta.



JON IRIARTE "TAKOLO"

Mondrak falta eta korer jaurtiketetan bakarrik izan zituen gol aukera garbiak.

## FUTBOLA

## Mondrak irabazi egin beharko du bihar, goialdean jarraitu gura badu

Oraingo asteburuko futbol partidu guztiak bihar, egubakoitza, jokatu dira

XABIER URZELAI

Mondrak irabazteko moduko partidua izango du bihar arratsaldean Atxabalpen. Josu Zubiaren mutilek lliintxa taldea izango dute aurrez aurre. Hamalagarren postuan dago lliintxa. Ea etxekoek joan den astekoa konpontzen duten.

Joan den astean, Mondrak aukera ona galdu zuen Zumaiian, baina besterik ez. Zumaiakok 2-0 irabazi zion Mondrari, baina horrelako taldeen kontra beti irabaztea ez da posible. Arrasatearrek ez zuten partidu txarrik egin, bai-

na ezin esan ondo jokatu zutenik. Zumaiako taldea ondo kokatuta egon zen, gol aukera gutxi izan zituen, baina izandakoak ondo aprobetxatu zituen. Mondrak falta eta korer jaurtiketetan izan zituen gol aukera garbienak, baina bat bera ere ez zuten aprobetxatu arrasatearrek.

Atsedendira berdinketarekin iritsi ziren (0-0), baina bigarren zatian gauzak dezentetatu ziren. Mondrak, gola egin guran, gorantz egin zuen, eta Zumaiakok bikain aprobetxatu zuen hori. Kontraeraso azkar bat egin, eta 1-0 aurre hartu zuten zumaiarrek. Partidua maldan

gora jarri zitzaion arrasatearrei; gorantz egiten jarraitu zuten, baina ideia argirik barik, eta jokaldi gehienak Zumaiako taldearen defentsak ezerezean utzi zituen. Hori gutxi izango balitz, beste gol bat ere egin zuten zumaiarrek; eta orduan ihes egin zien partidua Josu Zubiaren mutilei. Zumaiarren beste kontraeraso bat geratzeko asmoarekin, Andoni Azpiatzuk bigarren txartel horia ikusi zuen, eta partidua amaitzeko, Mikel Mondragonek penalti-bat ere geratu zuen.

Mondrak bihar, egubakoitza, jokatu du, lliintxaren kontra, 15:45ean.

## FOTOKIROLA



### Ander Corcuera, bosgarren Jaraman

Arrasateko pilotua Jaraman izan da asteburuan, Hyundai Kopako azkenaurreko proban. Entrenamendu saio onak egin eta gero, lehenengo lasterketan bosgarren iritsi zen helmugara, eta bigarren lasterketan seigarren izan zen mondragoetarra. Saillapen nagusian Ander Corcuera bosgarren postuan jarraitzen du, eta hurrengo lasterketak txapelketako azkenak-azaroaren 9ko eta 10eko asteburuan izango ditu. /X.U.

## HIRU HAUNDIXEK HIRU EGUNETAN

### AEDk antolatutako Hiru Haundixek Hiru Egunetan asteburuan izango da

Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkarteak antolatutako Hiru Haundixek Hiru Egunetan mendi martxa asteburuan izango da, egubakoitzetik domekara arte. Plaza mugatuak zeuden, eta ekimen horrek arrakasta handia izan du; izan ere, plaza guztiak bete egin dira. Guztira, berrogei lagunek parte hartuko dute mendi martxan, baina guztia prestatzeko jende asko izango da lanean. Ikusi egin behar eguraldiak laguntzen duen.

## MENDIA

### Besaide Mendi Elkarteak antolatutako mendi irteera bertan behera geratu da

Besaide Mendi Elkarteak Pirinioetara mendi ibilaldia zeukan antolatuta, baina ez denez inor animatu, ibilaldia bertan behera geratu da. Imanol Espositoren esanetan, lehen arrakasta zuten irteerak orain ez dute jendearen arretarik pizten. Edozelan ere, Besaide Mendi Elkarteak negu partean lan handia izango du, eskiatzera joateko irteerak arrakastatsuak izaten dira-eta.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

## SAILKAPENA

A MULTZOA	P.	J.	B MULTZOA	P.	J.
1. Makanaki	4	2	1. Aurrera Bolie	4	1
2. Saukelu Scream	3	2	2. AC Surcos	4	1
3. Iriztu Taberna	3	2	3. Dribling.es.vg	4	1
4. Betrayer	3	2	4. El Ekipo A.	4	1
5. Etxerat	2	2	5. AT Celaya	3	1
6. Al Kaeda	2	2	6. Fraguel Gol	2	1
7. Rayo Aldeano	2	2	7. Saloga	2	1
8. You Know!	2	2	8. Koka Juniors	2	1
9. Maldifa's	2	2	9. Fuxxion	2	1
10. NS/NC	2	2	10. Bikain Akademia	1	1
11. Lasagabaster	1	2	11. Etxinal!	0	1
12. Komando Alpargat	1	2	12. Whiskeria	0	1
13. Goma2	1	2	13. Billy & The Cowboys	0	1
14. Abcajarro	0	2	14. Estu La Larri	0	1

## EMAITZAK

A MULTZOA	B MULTZOA
Saukelu Scream - Abcajarro	6-6
Lasagabaster - Rayo Aldeano	3-6
Iriztu Taberna - Goma2	3-3
NS/NC - Maldifa's	1-3
You Know - Betrayer	3-4
Etxerat - Makanaki	2-5
Komando Alpargat - Al Kaeda	4-5
El Ekipo A - Fraguel Gol	6-4
Estu La Larri - Dribling.es.vg	2-7
Whiskeria - Saloga	4-9
Fuxxion - Billy & The Cowboys	3-2
Aurrera Bolie - Koka Juniors	6-3
AT Celaya - Bikain Akademia	6-6
Etxinal! - AC Surcos	3-7

## ORAINGO ASTEBURUAN, ATSEDENA

## ASTEBURUAN EZ DA PARTIDURIK IZANGO

Oraingo asteburuan, taldeek atsedena izango dute, zubia denez ez da-eta partidurik jokatu. Eta, agian, atsedena hartzea aproposa izango da, ea jokalariek batzuk apur bat lasaitzen diren. Joan den asteburuan, hainbat partidu ikusgarri izan ziren. Baina ikusgarriak, ez talde biek ondo jokatu zutelako, baizik eta partiduetan istilu asko izan zirelako. Aurtengo txapelketako antolatzaileen helburuetako bat da joko zikina ahal den neurrian ekiditea, eta daganeko hasi dira zigorrak jartzten.

## TXAPELKETAKO LEHENENGO ZIGORRAK

Joan den asteko jardunaldia aspaldian izan den istilutsuena izan zen. NS/NC eta Maldifa's taldeen arteko partiduan Maldifa's taldeko jokalariek ukabilkada eman zion jokalariei bati, eta lau partiduko zigorra izango du. Bestalde, NS/NC taldeko beste jokalariek batek ere partidu bateko zigorra izango du. Goma2 eta Iriztu taldeen arteko norgehiagokan ere istiluak izan ziren, eta hainbat jokalariek zigortuak izango dira; horrez gain, bi taldeek fidantza galdu dute. Epailak ere ez ziren bat ere fin aritu.

MUSIKA/ Ruper Ordorikak, aspaldiko partez, emanaldia egingo du Arrasaten

# Datorren egubakoitzean, Ruper Ordorikak agindutako kontzertua emango du herrian

IKER BARANDIARAN

San Juan jaietan Arrasaten izan zen, baina eguraldi kaskarren ondorioz, Ruper Ordorikaren kontzertua bertan behera geratu zen. Azkenean, Ruperrek agendan txoko bat egin, eta datorren egubakoitzean, azaroaren 8an, Amaia Udal Antzokian izango da.

San Juan jaietan Ruper Ordorikak Monterron parkean eman behar zuen kontzertuaren ordez, Arrasateko Udalak eta Ruper Ordorikak beste hitzordu bat zehaztu dute, eta azkenean, datorren egubakoitzean, azaroaren 8an, Ruper Ordorikak Arrasaten kontzertua eskainiko du. Hitzordua Amaia Udal Antzokian izango da, eta sarrera sei euro izango da; Gazte Txartela edukiz gero, berriz, bost euro. Seguru asko, San Juanetako emanaldia bertan behera geratu zenean atsekaberrita gelditu zirenak poztu egingo dira!

20 URTEK GORAKO IBILBIDEA

Ruper Ordorika oso musikari eta

kantari ezaguna da, gure artean ia aurkezpenik behar ez duena. Oñatiko musikaria aspaldi ez da Arrasatera etorri, eta datorren egubakoitzean, haren gaur egungo eta aspaldiko kantuak entzuteko aukera egongo da. Ruperrek dagoeneko oso ibilbide luzea egin du: 1980an *Hautsi da anphora* diskoa kaleratu zuenetik hona, geratu barik ibili da, eta kontzertuak ematen eta diskoak kaleratzen jarraitu du.

### KANPOAN EZAGUNA


Ruper Ordorikak bederatziko disko kaleratu ditu. Lehenengo hirurak Elkar diskoetxearekin: *Hautsi da anphora*, *Ni ez naiz Noruegako errege* eta *Bihotzerreak*. Gero, Madrilerako jo zuen, edo, hobe esanda, Madrildik Ruperren bila etorri ziren: *Ez da posible* lana kaleratu zuen. Handik aurrera, Elkar diskoetxearekin beste disko bat kaleratu zuen arren, Madrilgo Nuevos Medios diskoetxe berezituarekin lanean ibili zen. Milurtekoaren aldatzarekin, ordea, Euskal Herriko diskoetxe batekin lanean hasi zen: Esan Ozenki zigilua aukeratu zuen, eta ordutik

hona, Euskal Herriko industria-rekin lanean dabil.

Ruper musikari hasi zenetik euskara hutsean abestu du. Hala ere, Euskal Herri kanpoko diskoetxeekin lan egitea lortu du; Madrilgo Nuevos Medios diskoetxearekin, hain zuzen ere. Eta era berean, Madrilen hainbat kontzertu eman ditu.

Ruper Ordorika Euskal Herrian betidanik oso kontuan izan duten musikaria izanda ere, azkeneko urteotan, eta Esan Ozenki zigiluarekin lan egiten hasi zela batera gertatuta, jarraitzaile gehiago bereganatu ditu. Bestalde, Espainiako Estatuan oraindik ere badu oihartzuna.

Zuzeneko emanaldietan Mugalaris taldearekin ibiltzen da, baina azkeneko diskoak grabatzeko orduan Ameriketako Estatu Batuetako musikari ezagunekin egin du lan. Are gehiago, AEBetaraino jo izan du inoiz diskoa grabatzera. Tartean, Ben Monder eta ere Fernando Saunders musikari ezagunekin ere egin du lan. Azken hori, Fernando Saunders, Lou Reed-en taldeko baxulari ere izan da.



NEREA URTEAGA

Ruper Ordorikak ez du aspaldian kontzerturik eman Arrasaten.

# Pack Gaztea

# 95€

eta Pack bakoitzarekin buruko hau opari



Pack-a: lente kaxa bi + likidoak



## MULTIOPTICAS

beti zurekin



BERGARA  
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE  
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA  
Tel. 943 88 99 88



EIBAR  
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA  
Tel. 943 51 78 11

KULTURA EKITALDIAK / Kafè-antzerki ikuskizuna

# Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak 'Ondo esan beharko' ikuskizuna egingo dute



Ramon Agirreraren eta Joserra Senperenaren ikuskizunak arrakasta handia izan du antzetzutu duten herrietan.

ARRASATE PRESS

IKER BARANDIARAN

**Etzi, zapatuan, Ramon Agirrek eta Jose Senperenak 'Ondo esan beharko' ikuskizuna eskainiko dute Arrasaten. Ikuskizunean, gitarrà, piano eta mikrofono banak lagunduta, bakarrizketak, kantuk eta, batez ere, umore eta ironia handia uztartuko dituzte.**

*Ondo esan beharko* Ramon Agirre aktoreak asmatutako eta idatzitako ikuskizun berezia da. Ramon bera Joserra Senperena musikariarekin elkartu, eta bien artean ikuskizuna musikatu zuten. Ramon, hasieran, *one man show* deritzon erako ikuskizuna prestatzen hasi zen, baina azkenean, "irizpide estetiko eta etikoak kontuan hartuta", bikote moduan antzeztea erabaki zuten: hain zuzen ere, Ramon Agirre kontu-kantaria edo kantu-kantaria, batetik, eta Joserra Senperena piano jotzailea, bestetik; biak batera.

## IRONIAZ JOSITAKO IKUSKIZUNA

Aktore lanetan hogeituroko esperientzia dauka Ramon Agirre donostiarra, eta oraingoan, umorezko lan musikatu prestatu du: "Ikusle gisara ikusi nahiko nukeen umorezko lana da. Jendea bi minutuan behin barrez izatea ordubete osoan askotxo da, eta, gaitza badirudi ere, hori lortu dugu", azpimarratu zuen Ramon Agirrek.

*Ondo esan beharko* ikuskizuna arrakastaren eta porrotaren arteko harremanaren gaineko istorioa da, eta bakarrizketak sei

abestirekin tartekatzen dira. Ironia oso presente dago ikuskizun horretan; bakarrizketan euskara da nagusi, baina gaztelaniaz eta errusieraz ere mintzatzen dira hainbat unetan.

Emanaldi osoan Joserra Senperenak Ramon Agirrerekin batera parte hartzen du. Ramon Agirre berba egiten ari denean Joserrak pianoa jotzen du. Kontakizunaren eta abestien artean, musika eta antzerkiaren artean etenik ez izatea da bikote horren asmoa.

## KONTZERTUA ETA KOMEDIA

Bestalde, izatez musikaria Joserra Senperena bada ere, Ramonek berak, aktorea den arren, testuak idazte, kantatzen eta musika konposatzen aritzea oso gustuko du, eta zaletasun hori agerian gelditu da; izan ere, sei kantuatatik hirutan Ramon Agirrek egin ditu musika eta hitzak.

*Komedia musikal horretan gitarrak akustiko, piano eta mikrofono bana dituzte lagun*

Komedia musikal horretan piano, gitarrak akustiko eta mikrofono bana dituzte lagun bakar; eta Ramon Agirre bera nahiko eroso ikusten dugu gitarrak akustikoarekin Ramonek berak eta Joserra Senperenak konposatutako abestiak jotzen.

Ikuskizun bitxi horretan bikoteak hainbat elementu nahasten ditu: bluesa, koplak zaharrak, pasadizo sasi-biografikoak, rock-and-rolla, txantxa, eta, batez ere, umorea. Ikuskizunean Ramon Agirrek bere penak, maitasun

*"Ikusleak, ordubetez, bi minutuan behin barrez izatea lortu dugu; eta hori da garrantzitsuena"*

kontuak eta bizitzako pasarteak lotzen ditu, modu komikoan abestuta eta kontatuta, ironia betiere nagusi dela.

*Ondo esan beharko* lanean Ramon Agirre bere buruarekin ironiko samar agertzen da, galdutako amodioak malenkonia apur batez baina garrantzitasun barik gogoratzen ditu. Egin duen ibilbidea umorez alderatzen du bizitzan izan dituen lagunekin, eta Ramonek bere kontu eta gustu pertsonalak naturaltasun osoz azaleratzen ditu.

## Aktore eta musikari ezagun bana, batera

Ramon Agirre 1954. urtean jaio zen, Donostian. Valladoliden Arkitektura ikasten hasi zen, eta laugarren ikasturtean ikasketak horiek utzi, eta Eusko Jaurlaritzako Arte Dramatikoko Eskolan ikasketak hasi zituen. Orduetik hona, lan ugari egin ditu aktore bezala, bai antzerkian bai telebistan: besteak beste, *Bai horixe*, *La casa de los líos*, *El comisario*, *Periodistas* eta *Médico de familia*. Horiez gain, hainbat filmetan ere parte hartu du: *La hora de los valientes*, *Visionarios*, eta beste hainbatetan. Hogeituro urte pasatxo daramatza aktore

lanetan, eta eskola handia dauka Ramon Agirrek.

Joserra ez da Ramon Agirre bezain ezaguna, beste alor batzuetan lan egiten duelako. Joserra Senperena 1965. urtean jaio zen. Donostiako Goi Musika Eskolan piano ikasketak egin zituen. 1991. urtean, Ibiza Jazz musikako jaialdian parte hartu zuen eta Konposizio Onenaren saria eskuratu zuen. Horren ondoren, hainbat musikariarekin lan egin du. Horien artean, Duncan Dhu taldearekin, La Buena Vidarekin eta 21 Japonesas-ekin, besteak beste.

## LABUR

### Azarorako ere zineklub eskaintza antolatu dute

Udaleko Kultura Sailak, aspaldiko ohiturari jarraituz, Zineklub Zikloa antolatzeari ekingo dio. Eta dagoeneko aurkeztu du azaroko eguenean Amaia Udal Antzokian ikusi ahal izango ditugun filmak.

Datorren eguenean, azaroaren 7an, Jose Luis Guerin zuzendari kataluniarraren *En Construcción* filma emango dute. Film hori dokumentaltzat ere har genezake, Bartzelonako *El Chino* auzunean urbanizazio berri baten eraikuntzaren prozesua kontatzen du-eta.

Azaroaren 14an, Christopher Nolan zuzendari estatubatuarren *Memento* film arrakastatsua emango dute. Film berezi horrek Sitgesko Film Jaialdian Kritikaren saria jaso zuen. Protagonistak, *Leonard*-ek, emaztea bortxatu eta hil duena aurkitu gura du, mendeku hartzeko, baina ez da ezertaz oroitzen.

Azaroaren 21ean, AEBetako Julian Schnabel zuzendariaren *Antes que anochezca* filma emango dute. Venezia-ko Film Jaialdian hainbat sari jaso zituen filmak, baita aktore nagusi Javier Bardemek berak ere.

Eta azaroaren azken eguenean, azaroaren 28an, hain zuzen, Frantziako Virginie Wagon zuzendariaren *El Secreto* filma emango dute. Film horrek istorio intimista bat kontatzen du.



**GUREGAIK/ IKASLEENDAKO BEKAK**

# Ikasketak egiterakoan diru gutxiago xahutzeko, bekak

IKER BARANDIARAN

Unibertsitatera ikastera joateak diru gastu handia eragiten du. Hortaz, ahal izanez gero, gastu hori txikitzeko, merezi du jakitea unibertsitateek zein dirulaguntza ematen dituzten.

Unibertsitatean ikasten dabilzan gazteek, edo, hobe esanda, haien gurasoek, diru mordoxka jarri behar izaten dute seme-alaben ikasketak ordaintzeko; ez bakarrik unibertsitateko matrikula, baita etxebizitza, egoitza edo garraioa bera ere. Funtsean, diru asko behar izaten da etxetik kanpo ikastera joateko.

Gastu horiei guztiei aurre egiteko, bada aukera bat, onartu iza-

*Matrikula ordaintzeko ez eze, garraio eta mugikortasun bekak ere badaude*

nez gero, behintzat, eskatzea merezi duena. Urtero-urtero, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Unibertsitate Sailak eta unibertsitateek eurek ere hainbat beka eskaintzen dituzte. Horra hor, ikasketen matrikularen zati bat ordaintzeko laguntzak: unibertsitatera joan ahal izateko mugikortasun eta garraio bekak; EAE-tik kanpo ikasten dutenendako bekak, eta beste batzuk. Laguntzak familiaren diru sarreren arabera ematen dituzte, baina eskatuz gero, ez da ezer galtzen.



Urtero hainbat eta hainbat gazte joaten dira kanpora ikastera.

ARRASATE PRESS

**LOTSABARIK/ Mikel Carmona**

# “Ez dugu zortterik izan ligatzerako orduan”

IKER BARANDIARAN

Mikel oso tipo xelebrea da. Lotsa txikia dauka, eta ahotsarekin soinuak egiten ibiltzen da. Zinema oso gustuko du eta etorkizunean aktore izan gura luke. Badaezpada ere, Informatika ikasi behar du.


- Txikitan, zer izan gura zenuen?
- Aktore izan gura nuen, filmak oso gustuko ditut-eta. Gaur egun ere aktore izan gura nuke, baina informatiko lanak ere egingo nituzke. Gehien atsegin dudana aktorea Tom Hanks da.
- Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Gauza asko imajina ditzaket, baina baliteke informatikari lanean ibiltzea eta hiri baten bizi izatea. Aktore izango banintz, atzerrian bizi izango nintzateke.

- Zein da, zure iritziz, adin ideiala?
- Hamasei eta hamazortzi urte artekoa, askatasun handien eta ardura gutxien dituen adina delako.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehenetasuna?
- Familiari, lagunei, neskei, diruari eta zinemari.
- Zerk arduratzen zaitu gehien?
- Etorkizunak. Ez dakit zer gertatuko den.
- Zerk ematen dizu lotsa?

Zakila erakusteak. Oso gauza gutxi ematen didate lotsa, batzuetan neskekin lotsatzen banaiz ere.

- Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?
- Interpretatzen ona naiz eta ahoarekin hainbat soinu egiten ditut, baina agian oldartsua naiz.
- Zure gorputzeko atalik gustukoena?
- Hankako behatz lodiaren atzazala, barregura ematen didalako.
- Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?
- Lehenengo, fisikoari orokorrean, eta gero, izaerari.
- Arrasaten ligatzen da?
- Gure koadrilak oraindik ez du zortterik izan.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko laugarren maila • ZALETASUNAK: Zinema, bizikletan ibiltzea eta musika  
LIBURU BAT: 'El principe de la niebla' • FILM BAT: 'Armageddon' • MUSIKA TALDEA: Hans Zimmer eta Manolo Garcia • KIROL TALDEA: Betis

E, TXO!

**DIAPORAMA MONTERRONEN**

Gaztetxeko batzarrak (AGAKO) Asiako Urrezko Hirukiaren gaineko diaporama antolatu du. Azaroaren 13an (eguzte- na), Oskar Markaida mungiarak Laos, Vietnam eta beste herrialde batzuen gainean berba egingo du. Monterronen izango da.

**LUDOTEKA, ITXITA**

Okendo kaleko ludoteka itxita dago, urarekin dituzten arazoengatik. Arrasateko Udalak oraindik ez du jakinarazi noiz zabaldu ahal izango duten. Txatxilipurdik gogoratu gura du Santa Marinako ludoteka zabalik dagoela, gura duena hara joan dadin.

**LUDOTEKA IBILTARIA**

Azaroko lau zapatuetan Ludoteka Ibiltaria izango da Bedoñabe eraikinean, San Andresko Herri Eskolan. Hain zuzen ere, 11:00etatik 13:30era izango da, auzoko umeek han jolas egiteko aukera izango dute.

**EUSKARA TEKNIKARI LANPOSTUA AZKOITIAN**

Azkoitiko Udalak Euskara eta Hizkuntza Normalizaziorako teknikaria kontratatzeko deialdia egin du. Beharrezko da lizentziaduna izatea eta laugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea. Lanpostu horretarako eskaerak urriaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

**ADMINISTRAZIO TEKNIKARIA LEGAZPIN**

Legazpiko Udalak Administrazio Orokorreko teknikaria kontratatzeko deialdia egin du. Informazio gehiago gura izanez gero, [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) webgunera edo Legazpiko udaletxera bertara jo. Eskaerak aurkezteko epea urriaren 30era arte dago zabalik.



KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14  
ARRASATE

**TIKUKUN**

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**HIES BERRI**

Tel.: 943 79 26 99



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua:
- bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

## BEHEKODENDATIK

## Aitor Ruiz

## AITOR BEDAR DENDAKUE

XABIER URZELAI

Aitor eibartarra da. Dietetikie eta Nutriziñue ikasi euen. Negozio familiar baten hasi zan lanien, baiñe lantoki propiue eukittie gure euen, eta oin dala sei hillebete, dendie zabaldu euen Otalora kalien. Dendie alde zaharrakin bat egitteko propio dekorau dau, eta politte geratu da, egurre errespetaute.

## Amets bat?

Horrenbeste dauket. Zorionsu izetie da amets haundixena.

## Eta amets txar bat?

Ardurak eukittie. Zenbat eta nausixague izen, orduen eta ardu-ra haundixaguk.

## Egin dozun azken biajie?

Santanderrera.

## Txartel horixe, zeñei?

Nunbaittera jatera juen eta txarto emuten dauenari.

## Eta gorrixe?

Politikuei, jeneralien.

## Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

*Titanic* / *Enciclopedia de las plantas medicinales* / Baladak gustetan jat, erromantikue naz.

## Drogak legalizauko zittukie?

Demostraute dago droga batzuk osasunerako onak diela; horreik legalizauko nittuke.

## Eta prostituziñue?

Bai. Beste lan bat da.

## Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue, eta pintxuek jatie.

## Ze dauketzu sobran?

Gaur egun, ze daukogu sobran?

## Eta faltan?

Lagun onak. Pare bat dauket oso lagun onak dienak, baiñe zenbat eta gehixago euki, hobeto.

## Etxeko zapatillak ala zapatak?

Momentu bakoxtien gauza bat.

## Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Alde zaharra ondo dago, eta parke politte daguz.

## Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Alde zaharrien negozio bat zabalketie oso gatxa da. Alde horre-



X.U.

*“Zaletasun moduen sendabedarrak batzue gustetan jat. Oin, te berdie eta te gorrixe daguz modan”*

tatik, errextasunek ipiñiko nittuke, neurri batzuekin, baiñe.

## Eta lehendakari izengo bazitze?

Euskaldun danon lehendakari izeten ahaleginnduko nitzake.

## Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Izen be, danok daukogu zerbait interesantie.

## Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Hori da polittena, egunero ezaguketan dala norbait.

## Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeñekin?

Burutik pasau be ez jat egin.

## Bedarrez aparte, ze dauketzu dendan?

*“Neuri ‘Echinacea’ sendabedarra gustetan jat. Gorputzeko defentsak indarketan dittu”*

Danetik apur bat. Alimentaziñuaren eta dietetikiaren gaineko gauzak, kosmetika naturala, landare medizinalak...

Eta horreik bedarrok batze-  
ra zeu jueten zara?

Ez. Bedarrak batu zaletasun moduen egitten dot, baiñe dendakuek kanpotik ekarten dustie.

## Ze sendabedar gustetan jatzu gehixen?

Asko daguz. Neguen sartu biher garenez, *Echinacea* esango dot.

## Eta gehixen ibiltten dana?

Momentu honetan, te berdie eta te gorrixe daguz modan.

## Jentie zeren billa etorten da dendara?

Osasun billa.

## NIREBIDAIAHURA/ Jon Loiti

Marokora / 2001eko udan

Jon Loiti beste zazpi lagunekin abiatu zen joan den urtean, udan, Maroko aldera. Bidaia antolatu bat bertan behera geratu zen, eta azkenean, furgoneta bat errentan hartu eta euren kasa abiatzea erabaki zuen koadrila mondragoetarrek. Lehenengo egunean, Penintsula zeharkatu, ferrya hartu eta Ceutara iritsi ziren. Jonen esanetan, Marokora sartzea nahiko gogorra izan zen: “Baimen batekin arazoren bat edo beste izan genuen, eta, horrez gain, poliziak harrapatutako inmigranteak berriro ere zelan bueltatzen zituzten ikusi genuen. Zalaparta handia zegoen, eta nora gindoazen galdetu genion geure buruari”.

Hasiera gogor samarra izan zen, baina gainontzean ez zuten inolako arazorik izan. Chef Chaouen-erako bidea hartu zuten, eta hiru gau egin zituzten han. Chaouendik Fez-erako bidea hartu zuten, eta Fezen kanpinean izan ziren. Hegoaldera jarraitu zuten: Todrako Haitzartea, Dades, eta beste hainbat leku bisitatu zituzten.

Jonen esanetan, oso leku ikusgarriak dira haiek. Hala ere, askotan, lekuak baino gehiago, hantxe bizi izandakoak balio handiagoa izaten du.

Merzougan, basamortua baino lehenago dagoen azken herrian, furgonetara beharrezko guztia sartu eta basamortu aldera abiatu ziren. Basamortuan ez dago errepi-derik, eta furgoneta area artean geratu zitzairen, ez aurrera eta ez atzera. Hango batzuen laguntza izan zuten, eta haiekin igaro zuten gaua. Gameluak lortu zituzten eta basamortuan igaro zuten gaua: “Bidaia oroitzapen politenetako bat basamortuan igarotako gaua da, oso gau berezia izan zen”. Basamortutik Marrakex-era joan ziren, eta Gadez ere bisitatu zuten. Barrualdea ezagutu eta gero, iparralderantz jo zuten arrasatearrek, eta kostaldetik bueltatu ziren, hango hondartza eta herriak ezagutzen: Essa-oirra, Casablanca... “Gogoan izateko bidaia izan zen, gauza askorengatik, gainera; baina, batez ere, hangoekin izandako hartu-eman onagatik”.

XABIER URZELAI



Jon Loiti eta koadrilakoak basamortuan.



*“Hangoekin izandako hartu-eman oso ona izan zen”*

## Herrialde berriak bisitatu dituzu udan?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?  
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.





ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Urtean behin, Iturbide egoitzako egoiliar guztiek irteera bat egiten dute. Argazkian, Zaldibarren, pilota partidu bat ikusten.

## Iturbide egoitzako egoiliar berrien ordainketa sistema aldatu egin dute

IKER BARANDIARAN

Hemendik aurrera Iturbide egoitzan sartuko diren egoiliarrek ordaintzeko sistema desberdina izango dute. Kontua aspalditik dator. Orain arte, Udalak, urteroko ordenantza fiskalaren bidez, Iturbide egoitzako erabiltzaileek zein ekarpen mota egin behar zuten zehazten zuen.

Era berean, hainbat eskuduntza Udalarenak edo Gipuzkoako Foru Aldundiarenak diren zehaztu beharra zegoen, eta horren gainean ika-mikak egon zitira eta badaude oraindik ere. Arazo horiek saihesteko, iaz, Eusko Jaurlaritzak dekretu bat onartu zuen, eta Gizarte Zerbitzuen alorreko eskuduntzak erakunde bi horien artean banatu zituen.

Horren ondorioz, pertsona nagusien eta egoitzen ardura Udalarena izan behar da. Horren harira, aurtun, uztailean, Gipuzkoako Foru Aldundiak foru dekretu bat onartu zuen; dekretu horrek egoitzetan bizi diren pertsona nagusien ekarpena zenbatekoa

izan behar den zehazten du.

### EGOILIAR BERRIENDAKO SISTEMA

Foru Aldundiak onartutako dekretu berriaren arabera, egoitzako egoiliarrek duten ahalmen ekonomikoaren arabera ordaindu beharko dute, independente izan, mendekotasuna eduki edo

### Erakundeen desadostasunak

**Sistema berri horrekin, egoitzako erabiltzaileak -ahalmen ekonomiko txikia duenak- ordaindu behar ez duen zatia Aldundiak ordainduko du, muga batera arte. Baina, Udalaren iritziz, Aldundiak egoiliar bakoitzeko jarri duen muga ez da nahikoa, eta, hala, egoiliar bakoitzeko -dirua duena eta ez duena- diru dezente jarri beharko du Udalak.**

mendekotasun handia eduki. Tarifa altuena mendekotasun handiena dutenei eskatuko diete: 1.502 euro, hain zuzen ere. Egoira horretan dagoen egoiliar batek ahalmen ekonomiko handia badu, diru kopuru hori ordaindu beharko du. Aldiz, ahalmen ekonomiko txikia badu, baliteke ezertxo ere ordaindu behar izana. Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiak aztertuko du Arrasateko Iturbide egoitzan joan den uztailean ezker sartu gura dutenek zein ahalmen ekonomiko duten. Horren arabera ezarriko die ordaindu beharrekoa.

### BETIKO EGOILIARRAK ALDA DAITEZKE

Tarifa edo ordainketa sistema aldaketa hori egoiliar berrientzako bada ere, lehendik Iturbide egoitzan bizi direnek ere badute sistema berri horretara egokitzeko aukera. Horretarako, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak azalpenak eman dizkiete, eta batzuk aldatu dira dagoeneko. Dena dela, interesatuek aurtengo abendura arte dute sistemaz aldatzeko.

## LABUR

### 1938. urtean jaiotako emakumeek urteroko bilkura egingo dute azaroaren 9an

Azaroaren 9an (zapatua), 1938. urtean jaiotako emakume arrasatearrek urteroko bilkura egingo dute. Hain zuzen, Uarkape pilotalekuko jatetxean bazkari ederra egingo dute.

Bazkarian eta, bide batez, bilkuran parte hartu gura dutenek Uarkapeko jatetxean bertan eman beharko dute izena, hamabi euro ordainduta. Informazio gehiago, 943 79 51 14 telefonoan.

### Alzheimer Gaixoen Senideen Elkarteak elkarri laguntzeko taldeak eratu gura ditu

Gipuzkoako Alzheimer Gaixoen Senideen Elkarteak (AFAGI) alzheimerre duten gaixoen senitartekoei elkarri laguntzeko taldeak eratu gura ditu. Ikasturtea gaur, eguena, hasiko da, eta senitartekoak elkarrekin Arrasate pasealekuan duen egoitzan elkartuko dira. Interesatuok, deitu 655 71 18 37 telefonora izena emateko edo beste edozein argibidetarako. Ederto hartuko zaituztete!



### 1942an jaiotako emakumeen bilkura

Urriaren 19an, 1942. urtean jaiotako emakume arrasatearrek bilkura egin zuten herrian. Halako bilkura egiten zuten lehengo aldia zen, eta berrogeita zazpi lagun elkartu ziren. Lehenik eta behin, San Frantzisko elizan meza entzun zuten. Horren ondoren, paseoa egin zuten eta herriko plazara joan ziren.

Txikito pare bat hartu ondoren, Aldape jatetxera joan ziren, eta han ederto bazkaldu zuten. Menua ederra izan zen eta musika ere jarri zieten. Hala ere, ez zuten dantzarik egin, berrikeran oso gustura ibili zirelako. Baietz errepikatu! /I.B.

UGARTE

Industria  
hornidurak

San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.  
Tel.: 943-71 21 41  
Faxa: 943-71 21 40

UGARAN  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

Monte  
taberna

Maialako arrabala 2  
Tel.: 943 79 20 56



Pando  
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebedun hizkiak



ARRASATE  
**Elena Fernández**  
Urriaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE  
**Rosario Zubizarreta**  
Urriaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, amama Rosarito! Maria, Jabi eta Izaskun.



ARRASATE  
**Eneritz Badiola**  
Azaroaren 3an, 10 urte. Zorionak! Etxekoak. Musu bat Leireren partetik.



ARRASATE  
**Garikoitz Urrutia**  
Urriaren 30ean, urtebetete. Zorionak, familiako partetik.



ARAMAIO  
**Ane Zendoia**  
Azaroaren 3an, urtebetetzea. Zorionak! Nerea, Oihan eta Josu.



ARRASATE  
**Ane Rodríguez**  
Azaroaren 3an, 4 urte. Zorionak! M. Jesus, Marijo, Izaskun, Maite eta etxekoak.



ARRASATE  
**Julene Iturbe**  
Urriaren 31n, urtebetetzea. Zorionak! Markel, Elene, Mikel, Ane eta etxekoak.



ARRASATE  
**Mikel Otxandiano**  
Azaroaren 3an, 7 urte. Zorionak! Gurasoak eta senitartekoak.



ARRASATE  
**Luis Ruiz de Azua**  
Urriaren 29an 34 urte. Zorionak eta urte askotarako! Koadrilakoak.



ARRASATE  
**Ricardo Gorosabel**  
Azaroaren 7an 37 urte. Zorionak eta urte askotarako! Koadrilakoak.



ARRASATE  
**Mikel Loiti**  
Azaroaren 6an 24 urte. Zorionak! Lagunak.



ARRASATE  
**Naiara Castillo**  
Urriaren 31n 23 urte. Urte askotarako! Lehengusuak.



ARAMAIO  
**Ainhoa Vilches**  
Azaroaren 4an, 3 urte. Zorionak! Leire eta osabazibak.




ARRASATE  
**Miren Lizarantzu**  
Urriaren 3an, 17 urte. Zorionak, koadrilako partetik.



ARRASATE  
**Amaia Lizarantzu**  
Urriaren 31n, 17 urte. Zorionak, koadrilako partetik.



ARRASATE  
**Saioa Errasti**  
Azaroaren 1ean, 7 urte. Zorionak, familiaren partetik.



**Zorion itzazu zure lagun  
eta senitartekoak.**

Zatoz ARRASATE PRESSera argazki  
batekin eta utzi gure esku!  
Otalora Lizentziaduna, 31.



**URONDO**  
Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismokak

- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Zein ibai bi elkartzen dira Arrasaten? Eta Arrasateko zein lekutan elkartzen dira ibai bi horiek?



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **EGUAZTEN**  
**EGUERDIRAKO** ARRASATE PRESSERA!

**Campo Viejo errioxako ardoa**  
Gorria edo beltza 75 cl-ko botila

**2,90€** 483 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**MILAGROS BEITIA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Milagros!  
Galderaren erantzun zuzena:  
**41. edizioa da aurtengoa.**

ARRASATEKOHISTORIA

San Balerio: meatzariak zaintzen zituen patroia

ION ANDER RAMOS

Garai baten, meatzeak izan ziren Arrasateko ekonomiaren euskarrietako bat. Arrasateko meatzariak oso talde indartsua osatzen zuten, eta kofradia bat eratu zuten. Kofradiak patroï zaindaria eta kapera ere bazituen.

Meatzarien kofradia oso indartsua zen, eta kapera edo inguruak konpontzeko dirua izaten zuten. Garaiko hainbat dokumentu argi uzten dute zeresan handiko kofradia zela eta haren inguruan jende asko batzen zela. Dokumentu horiek XVI. mende amaierakoak dira, eta kofradiak dituen lurren gaineko dokumentuak dira.

Arrasateko meatzariak kofradia, patroia eta kapera izateaz gain, kapera zaintzeko emakume bat ere bazeukaten. Ez zen lan batere erraza, kaperak herritik baztertuta egoten zirelako, eta lan hori ez zen oso segurua. Urteek aurrera egin bazuten ere, XVII. mendean meatzarien kofradia bizi-bizirik zegoen. 1634ko kontratu bati esker, kofradiaren barne antolamendua zein zen jakin dezakegu, eta, horrez

*“Urtean 52 meza egiten zituzten, eta horietako lau meza kantatuak izaten ziren”*

gain, informazio baliotsua ere azaltzen da dokumentuan. Garai hartan, kofradiak urtean 52 meza agintzen zituen, eta horietako lau meza kantatuak izaten ziren. Meza kantatu haiek oso egun esanguratsuetan izaten ziren: Trinitatea ospatu eta hamabost egunera, eta San Dimas, San Sebastian eta San Balerio egunetan. Kofradiaren gaineko batzarrak meza ostean egiten zituzten, eta batzar haietan parte hartzeko derrigorrezkoa zen goian aipatutako lau meza esanguratsu horietara joatea.

San Balerio patroiarekiko debozioa handia zen. Meatzarien lana gogorra eta arriskuetsua zen, eta meatzariak babestea San Balerio patroiariz zegokion lana zen.



San Balerioko kapera: meatzarien patroia.

XABIER URZELAI

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko urriaren 31 / 45. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Pilota txapelketa gehiago antolatzea gura du herriko Barea pilota taldeak

UBANE MADERA

Barea pilota taldeak sortu du aurtengo ikasturterako pilotari taldea. 15-20 bat gaztek eman dute izena pilotan egiteko. Eta ibili ere fin dabilta astero-astero entrenamendu saioak egiten. Orain, txapelketaren bat antolatzekotan ari dira, mutikoez joka dezaten.

Zazpi urtetik hasi eta hamalau urtera arteko hamabost bat gazte astero batzen dira kiroldegiko pilotalekuan pilotan egiteko asmorekin. Enrike Asperen gidaritzapean ari dira; haren esanetan, "besterik ez bada, pilotarekiko zaletasuna hartuaz joan daitezten". Hori da Barea taldeak aurtengo ikasturterako duen helbururik nagusia. Enrike Aspek argitu digunez, jeneralean, 13 urteko gorakoek utzi egiten dute pilota bestelako ekimenak egiteko; hortaz, ađin horretatik aurrerakoek ere pilotan jarrai dezaten lortu gura du Barea taldeak.

### TXAPELKETA GEHIAGO

Horrekin batera, aurten, bestetan baino txapelketa gehiagotan par-



Hogei bat gaztek eman dute izena aurten Barea pilota taldean.

te hartzen saiatuko dira Bareako pilotariak. "Goiz edo berandu egingo dugu zerbait. Akaso, San Martinetan gure artean partidu-

ren bat jokatu dugu-edo..." Izan ere, gaitza da Bareakoendako txapelketetan parte hartzea edo txapelketak antolatzea; laguntza

handiagoa behar dute horrelakotarako: "Gaitza izaten da horrelakoak bakarrik egitea", diosku Enrikek, "inplikazio handiagoa

*Bareako pilotari gazteak gogoz ari dira, zaletasun handiarekin eta jarraitu asmoz*

behar dugu, bereziki, umeen gurasoen aldetik; hala, umeen zaletasuna ere bultzatuko dute".

### GAZTEAK, INDARTSU

Edozelan ere, pilotari gazteak indartsu dabilta; gogoz ari direla adierazi digute, zaletasun handiarekin eta jarraitzeko asmo sendoarekin. Batzuk astean lau bider joaten dira entrenamenduetara, ahal duten guztietan. Eta bada zale bat egiten zebilen gainerako ekimen guztiak alde batera utzi dituela pilotan egiteko.

### NESKATILAK

Bestalde, dei berezia ere egin du Barea taldeak. Enrike Aspek adierazi digunez, "neskatilak ere badira, baina, ez da inor animatzen: 8-9 urterekin etorri ahal dira".

## HERRITARRENHITZA / Manex Agirre • Ikaslea

### Izenak eta ez-izenak

Aspalditik dut zalantza bat buru barrua pipiak janda bezala uzten didana, golfeko pilota zuri gogor horien antzera daukat burmuina zulatuta, eta ez da batere agradablea, imajinatzea bederen.

Pertsona bakoitzak ditu bere bereak diren fraka batzuk, bere bereak diren galtzerdiak edo galtzontziloak. Era berean, munduan ez da inor egongo bere berea duen izen bat ez duena. Ez naiz erretrauzale sutsua (ez nuke nire bizitza erretrauen arabera moldatuko, ezta hurrik eman ere) baina noizena behin probetxuzko dira. Izena eta

izana lotzen dituen hura kasu. Izena duen orok omen du izana, euskal jakintza historikoak dioenez. Baina izan bagarela dudarik ez badugu ere (bueno, azkenaldian "bizi gara" eta halakoak gero eta gehiago entzuten dira), besteekiko nolakoak garen izenak markatzen duela uste dut.

Pertsona bat ezagutu berri eta konfiantza gutxiko erlazioa (kalean ezagun deritzenetenak) mantenduz gero, ez zaio bere



**"Ez da inor egongo bere berea duen izen' bat ez duena"**

izenez deitzen. Pertsona batekin nazka ematerainoko konfiantza edukiz gero ere ez zaio bere izenez deitzen, beti dago beste modu bat, hasi kapullo-tik eta kariño-raino. Baina kontu guztietan daude erdibideak eta tonu grisak, eta aurreko bien arteko konfiantza maila erdibidekoan uste

dut erabiltzen dela naturalki izena. Ez dakit adibide argigarria izango den, baina hona: konfiantza maila erakusten

duela frogatzeko badago izen edo abizenen arteko diferentzia markatzea ere. Udan Kuban egon naiz, eta han inork ez zion Fidel Castrori abizenez deitzen, guztien ahotan zebilena Fidel zen. Hemen, berriz, normalean Jose Mari katxondean soilik darabilgu. Hango jefea hurbil eta hemengoa urrun? Nik uste baietz.

Uste dut berezko izena golfeko pilotak bezala ari garela jaten, aipatzeak edo ez aipatzeak dakarren konfiantza mailaz ez garela konturatzen. Izan agian ez garen ere honetan, garenaren sinbolo izan dadila.

Portzierto, Manex dut izena.

## LABUR

### Manex Agirrek finalerako txartela lortu du

Manex Agirre aramaioarrak Bertsolari Gazteen Arabako I. Sariketako finala jokatu du. Manexek eta Ekaitz Goikotxeak lortu zuten joan den zapatuan sariketako finalerako sailkapena. Oihane Perea bertsolariak adierazi digunez, Manex Agirre beste bertsolari batekin paretsu samar ibili zen, baina, azkenean, gailendu egin zitzaion, kantatzeko moduari esker.

Txapelketako finala Gasteizen jokatu da, azaroaren 28an (eguna).

# Eguraldi ona eta giro ezin hobea izan zen azokan eta Erretiratuaren Egunean

UM


Herritar eta kanpotar ugari ibili zen zapatuan Aramaion kalean. Bereziki, arratsaldeko aurreneko orduetara arte.

Azokak erakarri zuen jende gehien. Izan zen, bai, zer ikusi eta zer erosi Nardeaga kalean. Hogei saltoki izan ziren, zortzi herritarrenak. Eta herritarren artean, adibidez, San Martin Eskolakoe-na izan zen. Baita Mendiolakoe-na ere.

Fruituak, berdurak, ezta... izan ziren nagusi. Gozogileak ere baziren, baita edarigileak eta artisa-  
tuak ere. Nor baino nor trebea-  
go. Kanpotik etorritako saltokien artean, adibidez, Laudioko talo-  
gileak izan ziren. Haiei esker, txistorraz eta buzkantzaz egin-  
dako taloak probatzeko aukera izan zen. Eta, horrenbeste gau-  
zaren artean, herriko trikitilariak ere ibili ziren kaleak alaitzen.

Bestalde, urteroko Erretira-  
tuen Eguna ere ospatu zuten zapa-  
tuan Aramaioko nagusiek. Eki-  
taldiak eguerdian hasi zituzten: Aramaioko parrokiaren meza egin zuten; gero, bazkaria izan zuten pilotalekuan, eta bazkalostean, dantzaldia. 153 bat lagun batu ziren pilotalekuan.


Kontuak kontu, hōriek guz-  
tiek bat egin zuten eguraldi ede-  
rrekin, eta zapatu polita izan zen Aramaion.



Jendea kalera irtetera animatu zen, saltokiak ikusi eta giroaz gozatzera.



Guztira, zortzi herritarrek ipini zuten saltokia azokan.



Mendiolakoeak, artisautzako produktuez gain, ortuan hazitakoak ere ekarri zituzten.



Parrokian batu ziren erretiratuak, besterik baino lehen, meza entzuteko.



Lagun Artean dantza taldeak omenaldia egin zien erretiratuari. ARGAZKIAK: KEPA ERRASTI.

## TELEFONJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ	GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
07:00	07:15	08:00		07:50	08:05
10:00*	10:15		08:15	09:00	09:15
11:00	11:15			10:15*	10:30
12:00*	12:15*	13:00		11:15	11:30
15:15	15:30	16:15	13:10	13:55	14:10
17:20	17:35		16:20	17:05	17:20
18:30*	18:45			17:35	17:50
20:30	20:45	21:25		18:45*	19:00
21:00*	21:15		19:30	20:00	20:15

## OHARRAK

**ASTEBURUAN ZINEA**  
Oporraldiaren ostean, berriro ere ekingo diote asteburuetan filmak emateari. Hain zuzen ere, eta nahiz eta oraingo asteburua bestetan baino luzeagoa izan, domekan, hilaren 3an, *Pudding Mágico* filma emango dute, kultura etxean 17:00etan.

**BAÑERAK GALDU EGIN ZUEN**  
Aurreko asteburuan pozik baziren ere, oraingoan, triste samar itzuli dira Bañera taldekoak Gasteiztik. Izan ere, 4-3 galdu zuten El Pilar Marianistas talde gasteiztarraren kontra. Oraingo asteburuan, berriz, ez dute partidurik jokatu Bañerakoek.

## ERRETRATU ZAHARRA

Mikeleteak Arrasaten  
izan zirenekoa

**A**urrezki kutzaren aurrean eta alboan Biteri Eskolak zituzte-l a dago aterata oraingo asteko argazki zaharra. 1931. urtekoa da; eta honako hauek osatzen dute argazkiko laukotea: zutik, ezkerrean dagoena Jose Eskubi Otadui da, basauri-rra; eta haren ondokoa Tomas Otadui da, Arrasateko errementaria (lehengusuak). Behekoen artean, berriz, Jose Otadui da ezkerrekoa eta Miguel Maritxalar *Migel Haundi* mikelelea (bazen beste mikelele bat *Migel Txiki* goitizenezekin).

Garai hartan, Gregorio Azkoaga zen Arrasateko mikeleteen sarjentua. Gure berriemaileak kontatu digunez, mikeleteen eginkizun nagusiak izaten ziren, aurrez-

ki kutzak zaintzarekin batera, etxez etxe joatea jabegoen kontribuzioak kobratzera. Bestalde, pasadizo bat badago Arrasateko mikeleteak protagonista direla: gerra aurretik, Gautxori tabernan jokoan egiten zuten (diruarekin); eta behin, motoan sidekar eta guzti ibiltzen ziren mikeleteak hara joan ziren, jokoa debekatzera. Isunen bat-edo izan zuten jokalariek. Gero, mikeleteek euren lanarekin segitu zuten, Santa Ageda barreneraino. Baina, bueltan zetozela, isuna jaso zuten jokalariek zain zituzten Mendigainen, hesola batekin. Diotenez, Mikeleteek *istripuren* bat izan zuten.


**Argazkia:** Josu Otadui  
**Informazioa:** Josu Otadui  
**Urtea:** 1931. urtea



## NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Udalatx,  
Araba aldetik  
ikusita

**A**rgazki batzuk nondik aterata dauden asmatzeko nahiko lan izaten dugu, eta oraingo astekoarekin buruhauste ederrak izan ditugu. Araba aldetik ateratako argazkia da; ez dakigu zehatz-mehatz nondik. Gure argazkia Kurtzetako bihurtzeko batetik atera dugu. Izan ere, gora eta behera ibili eta gero, horixe da Azkoagako eliza parean harrapatu dugun leku bakarra.



≈ 1966 Argazki zaharra askoz ere hurbilagotik aterata dagoela ematen du, baina gurea baino objektibo handiagoa erabiliko zuten.



2002 Egungo argazkian argi azaltzen da herrietan ez eze, auzoetan ere gauzak dezente aldatzen direla. Basoak ere dezente aldatu dira.



Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki, 3 behe (Musakola)  
Tel eta faxa: 943 77 11 20

**Metal aroztegia eta PVC**

Leihoak eta itxierak  
**Egur aroztegia**

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahai eta aulkiak



**Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis**

Otalora, z/g Behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

# Gida Komertziala 2003, abian!

## Aurten, berritasunez beteta


- Zerbitzu gehiago...
- Diseinu berria...
- Publizitate aukera handiagoak...

2003. urteko Gida Komertziala prestatzen hasi gara.  
Laster pasatuko gara zure denda, enpresa edo komertziotik.

Hurrengo egunotan, **Samin Larrañaga** publizista  
izango da zurean.

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

Samin Larrañaga



INFORMAZIO GEHIAGO: 943 71 23 91

# GIDA 2003 abian!

Aurten, telefono partikularrak  
aurkitu ahal izango dituzu.  
Lagunak, familia, ezagunak...  
Guztien telefono zenbakiak!

Telefono berria jarri baduzu  
edo aldatu baduzu, deitu  
**943 71 23 91**  
zenbakira.

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

# Azaroko zozketaren irabazlea: Isabel Balzategi.

Saria LANDALUZE HARATEGIAN banatu da.

Eros ezazu Ibai-Arteko dendetan eta irabaz ezazu 600 euroko sari berezia!



eta gainera...  
azaroan 600 €  
eta abenduan 3.000 €

Ikus eta egiazta itzazu Mapfreren prezioak!

SIETE 7

LÍDER

TODO RIESGO 100

POLIZA

POLIZA\*

POLIZA

FORD FOCUS 1.8 TDCI GHIA (115 ZP) .....	427,01 €	746,97 €	902,50 €
AUDI A4 TDI AMBITION .....	465,97 €	1.097,10 €	1.435,90 €
OPEL CORSA 1.7 DI SRI .....	384,35 €	570,02 €	695,27 €
RENAULT KANGOO 1.5 DCI EXPRESSION .....	450,77 €	728,57 €	857,93 €
RENAULT SCENIC 1.9 DTI ALIZE .....	488,44 €	954,15 €	1.193,70 €
BMW 318 TI COMPACT .....	505,29 €	962,27 €	1.196,29 €
CITROEN XSARA PICASSO 1.6 .....	433,68 €	780,19 €	952,58 €
CITROEN BERLINGO 1.4 MULTIVOLUMEN .....	414,59 €	617,32 €	757,08 €

ADIERAZITAKO KOPURUAK BEZERO HONI DAGOZKIO: 31 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUMEA, 10 URTE BAINO GEHIAGOKO GIDABAIMENAREKIN ETA %35EKO BONUSAREKIN. BESTE BONUS BATZUEN BERRI IZATEKO, GALDE EGIGUZU.

\*ARRISKU OROKO ASEGURUA FRANKIZIAREKIN.

 **MAPFRE**

Garibai etorbidea 16, Arrasate. Tf. 943 79 89 00 / 943 79 67 22